

DATORRENA

Desorekaren eta izuaren
anplifikadorea topera dabil

ISIDRO ESNAOLA > 3

PANTAILA TXIKIAN:

Hego Korea, Txipiroiez
harago > 22

GAIZKA IZAGIRRE BROSA

2021eko azaroaren 13a | XV. urtea • 748. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



xilaba



BERTSOA, SILABAZ SILABA > 12



8



22



Bulgariako komunitate turkiarrak bere egoera hobetzeko eskatzen du, eskubideez gainera 04

Itsas mailaren igoerari aurre egiteko neurriak Recifen 07

Txina eta Mongoliaren arteko muga, kamioilarien kalbarioa 08

Xilabako finalistekin solasean 12

Pantaila txikian: Hego Korea, txipiroiez harago 22

Amurizak ez diezazula izenburua zapuztu 25

Ikertzaileak eta dibulgatzaileak, «hater»-en jomugan 26

In fraganti: Alazne Diez Muñiz 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



26



28

SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Desorekaren eta izuaren anplifikadorea topera dabil
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Zeren beldur zara?
- 11 **Iñaki Altuna:** Euskal eskuina garai bateko FSLN goraipatzen?
- 18 **Unai Gaztelumendi**
- 19 **Miren Azkarate Badiola:** Ilargiak argitu gaitzala
- 19 **Antton Izagirre:** Mitoak, idoloak eta pertsonak
- 20 **Naiara Aginako Bengoa:** Irudi medikoen garrantzia minbiziaren erradioterapia teknika berrien sorreran
- 21 **Iker Barandiaran:** Mitifikatu egiten da ezagutu ez dena
- 30 **Ana Eloseggi Serna:** Hildakoen Eguna eta monarka tximeleta: Ongi etorri, Txusa maitea!



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Desorekaren eta izuaren anplifikadorea topera dabil

Leku itxi batean, esate baterako, dantzaleku batean, zerbait gertatzen denean, erre usaina sumatzen denean edo sua ikusten denean, mundu guztia saiatzzen da ahalik eta azkarren larrialdiko atetik ateratzen. Ikara handia bada, ate horietan jendea pilatuko da, eta atera beharrean, ziurrenik jende-oldea osatuko da: asko geldituko dira harrapatuta eta beste asko barruan ezin aterata. Burua hotz edukiz gero, ziurrenik kalteak askoz txikiagoak izango dira. Asko dagoenean jokoan, hori erraza da esatea baina askoz zailagoa praktikan jartzea. Horregatik, bestelako neurriak ere hartzen dira, esate baterako, edukieraren kontrola, larrialdi irteeren kopurua zehaztea eta tamaina definitzea eta abar.

Dantzalekuak bezala, merkatuak ere gehiegizko erreakzioak eragiten ditu. Gauzak gutxi gorabehera ohiko bidetik badoaz, jendea kokatzen da eta joko arrunta aurrera doa, baina ohiko mugimenduetatik ateratzen denean, kontrola erabat galtzen da. Horrelako zerbait gertatzen ari da orain gasarekin, adibidez. Momentu honetan, gasaren erreserbak normalak baino pixka bat txikiagoak direnez, espekulatzaileak jo eta su ari dira egoera hori esplotatzen eta dirutza egiten. Antzeko zerbait gertatzen ari da beste gauza askorekin: edukiontziekin, lehengaiekin...

Dantzalekuan ez bezala, azken berrogei urteetan merkatuetan babes neurri guztiak kendu dituzte: orain espekulatzaileak sartzen eta ateratzen dira kontrolik gabe, dirutza batetik bestera mugitzen da eta horrek biderkatu egiten ditu ikararen efektuak. Momentu honetan desorekaren anplifikadoreak bihurtu dira.

Pandemia aurretik lotura ekonomikoek erloju baten moduan funtzionatzen zuten. Munduko edozein bazterretan, zerbaiten falta sumatzen bazen, berehala estaltzen zen defizit hori. Gainera, zaila zen horrelakoak ger-

tatzea, gauza asko aurreikus zitekeelako: *black friday*, Gabonetako kanpaina, oporraldiak, eskolara buelta, merkealdiak... Jendearen ohiturekin gehi publizitate kanpaineekin, dena bideratuta zuten boteretsuek.

Itxialdiak lotura horiek puskatu zituen eta orain no-nahi desorekak sortzen dira. Eta jendearen presak deslaturak areagotu egiten ditu. Horrela, norbaitek ikusten badu bere edukiontzia ez dela garaiz iritsi, itxaron beharrean, beste bat eskatzen du, badaezpada ere, bigarrena garaiz irits dadin. Eta horrela, desorekak arindu beharrean, areagotu besterik ez dira egiten eta horrek ohiko erritmoa berreskuratzea zailtzen du.

Testuinguru horretan, gainera, zurrumurruak zabalitzen dira (autonomoak lehengairik gabe geldituko dira...) eta mundu guztia saiatzzen ari da behar dituen gau-

Inor hornidurarik gabe geratuko bada, litekeena da txikia eta behartsua izatea, eta ez aberatsa eta ahaltsua. Zerbaiten faltan gelditzeko arriskua beti dago, baina buruarekin jokatu behar da beti

zak pilatzen, gainpresio bat gehitzen egoerari. Izan ere, inor hornidurarik gabe geratuko bada, litekeena da txikia eta behartsua izatea, eta ez aberatsa eta ahaltsua. Zerbaiten faltan gelditzeko arriskua beti dago, baina buruarekin jokatu behar da beti. Esate baterako, azken boladan zabaldu da itzalaldiaren aukera. Nahikoa da Jose Ignacio Sanchez Galani itzalaldiak Iberdrolari ekarriko lizkiokeen galerengatik geratuko litzaiokeen aurpegian pentsatzea, hori ez dela gertatuko ulertzeko. Beti egon daitezke matxurak, baina berehala konponduko dituzte. Eta itzalaldi bati aurre egiteko gasez funtzionatzen duten hozkailuak erosteak ere ez du zentzu handirik... gasa falta dela esaten ari direnean! •

TURKIARRAK BULGARIAN

Dagozkion eskubideak ez ezik, egoera hobetzea eskatzen du gutxiengo honek

Dagoeneko 72 urte dituen Salihri, Stanimir izena jarri zioten. Inposatu zizkieten abizenez ez da ondo gogoratzen denbora asko igaro delako, baina Assen Gjorgiev zirela uste du. Fatme Findanka Shasheva bihurtu zen eta barre egiten du seme-alabak ondoan dituela gogoratzean. «Pomakak izan ginen izen aldaketa pairatu genuen lehenak», salatu du eslaviar musulmanen gutxiengoko kide den emakumeak.

1984. urtea zen, abendua, eta Todor Zhivkov orduko buruzagi komunistak Bulgarian bizi ziren turkiarrak asimilatzeke kanpainari ekin zion, «Susperraldia» izendatu zuen kanpainari, hain zuzen.

600 urtez bertan bizi zirenen identitatea errotik suntsitzea erabaki zuen eta horretarako beraien izenak erabiltzea debekatu, erlijioa legez kanpo utzi eta beraien hizkuntza erabiltzea galarazi zuen.

 **GUTXIENGOAK** / Miguel Fernandez Ibañez

la 40 urte igaro dira Bulgariako komunitate turkiarra asimilatzea helburu zuen «Susperraldi» kanpainatik. Egun, haien komunitate izaera ez dago arriskuan eta EBn gutxiengoei onartzen zaizkien eskubideak bermatzeaz harago, eskualdea garatzea dute lehentasuna, gazteek Mendebaldeko Europara alde egin ez dezaten.

Protestak, hildakoak eta atentatuak egon ziren. Komunitate turkiarrak ez zuen amore eman eta erregimenak estrategia aldatu zuen. Turkiara alde egitera behartu zituen eta Ankarak mugak itxi zituen beldurrak jota iheska zetorkion jendeari igarotzen ez uzteko.

Urte hartan, beste abendu aztoratu batean, komunismoak porrot egin zuen eta turkiarrak izen-abizenak, hizkuntza, identitatea berreskuratu zituzten.

Iharra, Salih kotxean iristen da laguna duen Mustaphahk

Benkovskin duen biltokira eta bere herrixkara, Dedetsera, eramango dituen poltsa txuriak jasotzen ditu. Bere alabarentzat dira. Funtzionarioa da, diosku harrotasunez.

Abegitsua da oso, gehiegi agian, musulman oro bezalaxe, eta 1984ko abenduan izan ziren istiluetan hildakoen omenezko oroigarria lagundu gaitu. Monumentua Mogilyanen dago, 20 hilabete eta bi egun zituen Turkan Feyzullah hil zuten herrixkan. Salihk haren alde otoi egin du. Geroago ere egingo du, hilerrian.

«Gutako batzuk jipoitu egin gintuzten, beste batzuk erail egin zituzten. Gure herrixkan 50 bat familia bizi ziren eta bost baino ez ziren gelditu. 1989an gehienek alde egin zuten. Guk ere dena prest genuen, baina sinadura bat falta zitzaigun eta ezin izan genuen ihes egin», gogora ekarri du Salihk Bulgariako, Turkiako eta Greziako mugek talka egiten duten Europako bazter honetan, lerro banatzaile modernoan alde bietan herri desberdinak bizi diren lurralde koralean.

DEITORATU BAI, BAINA...

2012. urtean Bulgariako Parlamentuak «erregimen totalitario batek egin zuen garbiketa etnikoa» gaitzetsi zuen, baina garai ilun haietan izan ziren erailketen eta giza eskubideen bortxaketan gaineko zenbakirik ez zuen eman. Eta gutxiengo turkiararentzat auzokide eslaviarrak «nazionalistegiak» badira ere, eta euren identitatea ez dela guztiz errespetatzen uste badute ere, beste arazo batzuk lehenesten dituzte 2021. urte

Arda ibaiak bitan zatitzen du Kardzhali hiria. Komunitate turkiarra gehiengoa da bertan. M.F.I.



honetan. «Bulgariarren eta turkiarren arteko harremanak hobera egin du azken urteetan eta ez dugu arazorik. Hemen kezkatzen gaituena lan falta da», azaldu digu Salihk. Kayaloba herrixkaraino lagundu gaitu, feyzullahtarren jaioterriraino, eta agur esan digu.

Feyzullah familiak Kayalobatik alde egin zuen ahal izan zutenean eta oporretan baino ez da bueltatzen, 1989an ihes egin zuten 350.000 turkiarren artean gehienek egiten duten bezala. Bertan geratzea erabaki zutenek arazo larriak dituzte: ez dago lanik eta tabako sailek behera egin dute. Gazteen aukera bakarra emigratzea da.

Ahmet Kocaomerrek 34 urte ditu, eta sei hilabete eman ditu lanean Alemanian. Aurki joango da berriro baina bitartean Mehmet anaiari (27) eta Fatme amari –duela ia 40 urte Fidan-ka izena inposatu zioten emakumeari–, laguntzen die auzokideen soro batean. Ahmetek inbertsioak eskatzen ditu: «Errepideak eta ur kanalizazioak konpondu ditzaten nahi dut. Fabrikak eraiki ditzaten nahi dut. Hemen ez dago lanik eta soldatak oso txarrak dira. Horrexegatik goaz, hain zuzen, Alemaniara».

POPULAZIOAK BEHERA

Aurreikuspen demografikoen arabera, 2050. urtean Bulgariak populazioaren %38 galduko du 1990. urtearekin alderatuta.

1984an komunitate turkiarra 900.000 biztanlek osatzen zuten, populazioaren %10 zen hori. Gaur egun 600.000 inguru dira, %8, eta gehiengo dira Kardzhalin (%66), hego-ekialdean, eta Razgraden (%50), ipar-ekialdean. Bulgariako eslaviarren antzera, aukera txikiena baliatzen dute Mendebaldeko Europara ihes egiteko,



gehienetan kualifikaziorik gabeko langile bezala eta migrazio zirkularraren barnean. Hori da, hain zuzen, Ahmeten kasua.

Kardzhalira bueltan (eskualdeko hiriburua da, Kircaali turkieraz), minibusak Rodopekko mendilerroko bidean dauden aldapak zeharkatzen ditu. Errepideak zuloz beteta daude, berriak sortzen direnean konpon-tzen diren kaltez josita. Bidaiariek, gehienak adinduak,

DPS turkiarren alderdiko kideak Kardzhalin. Propaganda bulgarieraz idatzi behar izaten dute. M.F.I.

ibilbidearen edozein lekutan itxaroten diote autobusari.

Kardzhalin turkiera da nagusi solasaldi guztietan, baina ez du ia tokirik eremu publikoan. Harritzekoa da, baina Eskubideen eta Askatasunen aldeko Mugimendu turkiarzaleak (DPS) berak ere ez du bere hizkuntza erabiltzen propagandan.

«Turkiera erabil dezakegu eremu publikoan baina nazionalista bulgariarrak esnatuko ote ditugun beldur gara», justi-

fikatzen du Birol Koseomer DPSko ordezkari nagusiak. Eskualdeko agintariekin bilera amaitu berri du; bulgarieraz egin dute.

«Europako Parlamenturako hauteskunde kanpainan edozein hizkuntza erabil dezakezu, baina Bulgarian debekatuta dago: gure bilerak bulgarieraz egin behar ditugu. Zergatik neurri bikoitza? Bulgariako Konstituzioan ez direlako onartzen herri turkiarra eta beste gutxiengoak. Hemen hutsaren hurrena bagina bezala begiratzen gaituzte. Ez da samurra gutxiengo baten kide izatea, dozenaka diputatu badugu eta bi aldiz gobernuan parte hartu badugu ere», salatu du Koseomerrek.

SEGURTASUNA ETA ERLIJOA

Komunismoak porrot egin eta ondorengo urteetan, bulgariarren %60k segurtasun nazionalarentzat arriskutzat zituzten turkiarrak eta %83k erlijio arlo-

HAUTESKUNDE OROKORRAK BIHAR

Bulgariak hauteskundeak egingo ditu bihar, legebiltzarrerako eta presidentetzarako. Azken horietan faborittoa egungo presidentea da: Rumen Radev, Errusiaren aldekoa eta jenerala. Alderdi Sozialistaren eta bi mugimendu populistaren babesa du, «Aldaketari Eusten Diogu» (hirugarren indarra inkestetan) eta «Herria Hor Dago», uztaileko hauteskundeak irabazi zituena baina gainbehera doana.

Radevek Sofiako Unibertsitateko errektorea den Anastas Gerdzikov du lehiakide presidentzialetan baina bere benetako etsaia GERB eskuineko alderdiaren Boiko Borisov da, azken 12 urteetan lehen ministroa izandakoa. Radevek Borisoven aurka kanpaina deitu zuen eta manifestazioek hauteskundeak aurreratzera behartu zuten uztailean. Ordutik gobernu teknokrata bat dute. Gutxiengo turkiarrak %9 lortuko luke.

an fanatikotzat jotzen zituzten. Bulgariako turkiarrak meskita-ra gutxitan joaten diren arren eta batzuetan alkohola edaten duten arren, aurreiritzi hori oso hedatuta dago eslaviarren artean.

Gainera, Sofiak Otomandar Inperioaren eta bere okupazio luzearen aurka eratu du bere errelato heroiko modernoa. Il-do horri jarraituz, Estatuak ikuspegi negatiboa bultzatzen du historia liburuetan, errepresioa eta islamera indarrez bihurtzea salatuz, eta turkiarrek dituzten bertuteak, abegitasuna esaterako, ezkutatu. «Ez dute errealtatea era objektiboan aurkezten eta horrek bere ondorioak ditu: komunitateak etsai bilakatzen dira eta ikasleen artean diskriminazioa eta mesfidantza nagusitzen dira», azaldu du Tomasz Kamusellak, St. Andrewseko Unibertsitateko Historia Modernoaren Departamentuan Ekialdeko eta Erdialdeko Europari buruzko ikertzaileak.

«Ez dago biolentziarik, baina inposatzen den diskurtsoa bulgariar nazionalismoarena da. Bulgarian gutxiengoak izateak zaila izaten jarraitzen du», ondorioztatu du Kamusella ikertzaileak.

IRAGANA ETA ORAINA

Iraganak oraina baldintzatzen du. Bi komunitateengan. Turkiarri kezka handiagoa sortzen dio lan eta azpiegituren faltak, baina ez da bere eskubideez ahazten, batez ere hezkuntza arloko. Izan ere, ama hizkuntzan ikas dezakete eskola pribatuetan, baina publikoetan turkiera hautazko ikasgaia da, eta hori ez da nahikoa haientzat.

Ez dago dirurik, baina ez dago aldatzeko nahirik ere. «Estatuak diru falta argudiatzen du, baina




borondate falta da. Gure oinarritzko beharrak ordaintzeko daukagun aurrekontuarekin nahikoa da, baina ez da nahikoa», salatu du Koseomerrek. Hori bai, politikaria izanik, DPS alderdiaren, eta batez ere bere buruzagi historikoa den Ahmet Doganen erantzukizuna ez du aipatzen.

«DPS gainerako alderdi guztiak bezala ari da. Buruzagieta-ko batzuk sistemara egokitu dira eta oligarkak bilakatu dira. Horrela, bada, eta komunismoa

Ezkerrean, DPS alderdiaren propaganda. Beste argazkian, Salih otoi egiten, 1984ko abenduko liskarretan eraildako enenez, Mogilyaneko kanposantuan. M.F.I.

1984. urtea zen, abendua, eta Todor Zhivkov orduko buruzagi komunistak Bulgarian bizi diren turkiarrak asimilatze-ko kanpainari ekin zion, «Susperraldia» kanpainari

2012an Bulgariako Parlamentuak «erregimen totalitarioaren garbiketa etnikoa» gaitzetsi zuen, baina izan ziren erailketak eta giza eskubideen bortxaketak ez zituen aipatu



erori zenetik gobernatzeko giltza izan badu ere, DPS alderdiak ez du komunitate turkiarri dagozkion eskubideen alde borrokatzen», dio Kamusellak. «Ethnic Cleasing During the Cold War: The Forgotten 1989 Expulsion of Turks from Communist Bulgaria» liburuaren egileak, hala ere, ez du ahazten Gobernuaren erantzukizuna. «Bulgariak eskubideak bermatzen dituzten itunak sinatzen ditu, baina praktikan ez du ezer egiten».

Turkiarren presentzia herrialdean bost mende iraun zuen Otomandar Inperioarekin lotuta dago, XX. mendera arte. Balkanetako bi gerren eta bi mundu gerren ostean komunismoa gailendu zen bulgariarren artean.

Hasiera, gutxiengoak eta haien eskubideak onartu egin ziren, turkierazko publikazioak ugaltu egin ziren eta eskola hizkuntza horretan ematen zuten

matrikulazioak ere bai. «Turkia NATOren kidea izanik, irakasleak Azerbaijane-ko ekartzen zituzten, eta turkieraz lan gehien inprimatzen zituen bigarren herrialdea bilakatu zen Bulgaria, Turkiaren beraren atzetik.

1974. urteaz geroztik dena aldatu zen eta 1984-1985eko gertakariekin amaituko zen jazarpena hasi zen», gogorarazi du adituak.

Aurretik, 60ko hamarkadan, erregimena herrialdea bulgariartzeko ideiarekin hasi zen. Todor Zhivkovek gonbita egin zien gainerako nazioetako herriarrei euren izena borondatez aldatzeko. Ia inork ez zuen onartu turkiarren artean. 24 urte geroago, behartzen saiatu zen.

Horrela ere ez zuen lortu, ordea, Salih, Fatme edo Birol bezalako pertsonek sekula ez ziztuztelako zalantza jarri ez euren izen-abizenak ez euren identitatea.

ITSASOA GELDITZEA

Recife hiria itsas mailaren igoerari aurre egiteko neurri ausartak aztertzen ari da

📁 **INGURUMENA** / Waldheim García Montoya (Efe)

Recife, Brasilgo metropoli handienetakoa, prestatzen ari da klima aldaketak eragindako eta mundu osoko hainbat hiri mehatxatzen dituen itsas mailaren igoerari aurre egiteko.

Nordeste eskualdeko Pernambuco estatuko hiriburua da, eta 4 milioi biztanle baino gehixeago ditu bere metropoli eskualdean. Klima aldaketaren mehatxurik handiena duten munduko hirien zerrendan 16. postuan agertzen da. Eta Brasileko hirien artean, lehena da, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) berriki egindako txosten baten arabera.

Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldearen arabera (IPCC, ingelesez), Recife hiririk ahulena da itsasoak aurrera egiten badu, «bere geografiagatik, dentsitate demografikoagatik eta desberdintasun sozialagatik».

«Brasilgo Venezia» deiturikoa, hainbat auzo zeharkatzen dituzten ibai eta ubideengatik, larrialdi egoera deklaratu zuen 2019an klima aldaketaren ondorioz, Pernambucoko Unibertsitate Federaleko Ozeanografia Departamentuak (UFPE) itsas maila 30 eta 40 zentimetro artean igo zela adierazi ondoren.

Brasilen fenomeno horrek kostaldeko Sao Paulo, Rio de Janeiro eta Santos ere alertan jarri ditu, baina Recife arrisku handiagoa du, bera delako itsasoaren mailari dagokionez herrialdeko hiririk baxuena, eta hiri eremu bat estuarioen lautadatik oso gertu dagoelako, uharteek, ibaiek eta ibai kanalek osatzen duten erdialdeko eskualdeaz gain.

Ikerketak baztertu egiten du hiria itsasoak «irenstea», baina igoera horien ondorioak geldia-

Recife Brasilgo metropolia klima aldaketak eragindako itsas mailaren igoera dela-eta mundu osoan mehatxurik handiena duten hirien artean dago. «Brasilgo Venezia» harrizko hesiak eraikitzea edo hondartza gizentzea aztertzen ari da, baina baita «mintz anfibia» izango litzatekeen ekoparke teknologiko bat eratzea ere.

razteko berehalako ekintzak behar dituzten arrisku eremu batzuetan dauden zailtasunez ohartarazten du, hala nola Brasilia Teimosa favelan, Boa Viagem auzotik gertu.

Ilha do Retiro auzoa, non Sport Recife futbol taldearen estadioa dagoen, erdialdeko eskualdean dago. Eraikinek eta zubiek ezkutatzen zuten uharte

bat zen, eta lurrez betetzeko prozesu batetik igaro zen.

Aldaketa hori ia lau mende lehenago hasi zen, Holandak Pernambuco okupatzearekin eta Europako herrialdetik iritsitako esperientziarekin: hiriak eraikitzeke mangladiak eta ibai irlak lurrez betetzea.

Hala ere, UFPEren arkitektura eta hirigintza ikerketa baten

arabera, holandarrek zabor hondakinekin egindako betelana, batzuk organikoak, ez zen egokia izan eta, horregatik, 360 urte geroago, Joana Bezerra bezalako auzoetan pitzadurak izaten dira, kasu batzuetan larriak, 2 metroko sakonerarekin.

Hondartza «gizentzea», harea gehiagorekin eta harrizko hesiekin, adituek azaldutako aukeretako batzuk dira itsas mailaren igoerari aurre egiteko, baina badira epe ertainera ausartagoak diren beste proiektu batzuk ere.

«Reciferen potentziala ibaiak dira. Ez da kasualitatea Recife 'Brasilgo Venezia' bezala ezagutzeta. Recife hiru irlek osatzen dute eta sei ibai eta 60 kanalek baino gehiagok zeharkatzen dute. Hiriaren izaera da», azaldu du Juliana Brittok, duela 25 urte ibai ibilaldiak suspertu zituen Catamaran Tours enpresako zuzendariak.

Mila Montezuma UFPEko ikertzaileak proiektu bat aurkeztu zuen hondartzatik 500 metro eta 1 kilometro bitarteko distantzian, ekoparke teknologiko fluktuatzaile bat sortzeko: «Mintz anfibia». Itsasoa kostalderantz barneratzea eragozteko motelgailu natural gisa funtzionatuko luke, eta energia garbia sortzeko ere aprobetxatuko lukete.

Recife Ingurumen Idazkari-tzak adierazi zuenez, Alkatetzak, NBEren alertaren aurretik ere, «berotegi efektuko gasen isurketa murrizteko modu integratuan» jarduten du.

«Baso-berritze bidez landare-tza hedatzeak eremu iragazkorraren ehunekoa handituko du, eta drainatze azpiegiturretan, euri uren erabileran, garraio publikoaren egokitzapenean eta hiri mugikortasunean inbertitzeak ere bai», adierazi zuen Idazkaritzak.

Brasilgo kostaldea, Rio de Janeiron.
Mauro PIMENTEL | AFP



KAMIOILARIEN KALBARIOA

Itxaronaldi luzeak jasaten dituzte ikatzaren garraioan ari direnek Txina eta Mongoliaren arteko muga zeharkatzeko

 **GARRAIOA / GAUR8**

Gurutze bide batean bezala poliki-poliki egiten dute aurrera kamioilariak Mongoliaren eta Txinaren arteko muga zeharkatzeko. Pandemia dela-eta ezarritako neurriek geldotu egin dute lehen ikatza garraiatzeko ziztu bizian egiten zuten bidea. Eta geldirik dauden bitartean beste kalbario bat pairatzen dute, ez dutelako soldatarik jasotzen.

Soldata jaso gabe eta amaigabeko itxaronaldiaren aurrean: Txinarekin muga, bata bestearen atzean ilaran, kamioilari mongoliarrak egonezinean bizi dira euren ikatz kargamentuak entregatze-

ko zailtasunen aurrean etsita. Covid-aren kontrako neurriek gelditu egin dute haien lana. Pandemia baino lehen, errepidea ibilgailuz beteta zegoen, ziztu bizian pasatzen ziren Txinan erregai preziatua banatzeko. Txinak ikatzarekiko mende-kotasun handia du, eta gaur

Kamioilariak, babes jantziekin, covidaren analisiak egiteko zain, Txina eta Mongoliaren arteko muga.
Uugansukh BYAMBA | AFP

egun bere hazkuntza ekonomikoa mehatxupearan dago elektrizitate mozketak direla-eta.

Baina orain, Tsagaan Khad hiriaren kanpoaldeko kamioi ilarak mantso baino mantsoago egiten du aurrera, Mongoliak eta Txinak hartutako osasun neurri zorrotzak direla-eta.

Ia basamortua den inguru baten erdian, dozenaka atoi lerrokatuta daude ilaran, euren txandaren zain. Beste batzuk geldirik daude alde batean.

«Gure familiek dirua behar dute negurako egurra, gasolina eta arropak erosi behar dituztelako», adierazi zuen kexuka Davaasuren Tsogtsaikhane, txinatar aldean entrega bakarra egiteko aste asko itxaron behar izan zuen kamioilariak. Txofer guztiak haserre daude, «gastuak ordaintzeko zailtasunak» omen dituztelako, 32 urteko gizon horrek dioenez.

Mongolia eta Txina auzokide dira, eta muga luzea partekatzen dute. Mongolia munduko lehen herrialdeetako bat izan zen, 2020aren hasieran, Txinarekin pasabideak ixten, koronabirusaren hedapena geldituzeko.


Foku bakar batzuk izan ezik, birusa ia desagerrarazita dago Txinan eta orain posible da merkantzien zirkulazioa.

Baina Mongoliak osasun arau zorrotzak ezarri ditu. Beldur da kamioilariren bat Txinan kutsatuko ez ote den eta, horrek Pekin muga ixtera bultzatuko ez ote duen.

Txoferrei lehenengo azterketa Mongoliako aldean egiten diete taldeka. Gero, musukoak eta babes jantziak jarrita, autobusez eramaten dituzte Txinako aldera, bigarren proba egitera.

Behin probak eginda eta muga kamioiarekin igarota, kamioilariak debekatuta dute kabinatik irtetea eta leihoak irekitzea.





Kamioek ilara luzea osatzen dute basamortua den inguruan. Uugansukh BYAMBA | AFP

Teorian, «biharamunean bertan eman daiteke ikatza Txina osotik, gidari talde osoa negatiboa bada», azaldu zuen hiru seme-alabaren aita den Undrakh Bold 43 urteko kamioilariak.

Baina, errealtatean gauzak ez dira hain errazak.

Abuztu hasieran, mugara iritsi zenean, Ulan Batorrera itzuli behar izan zuen (800 km-ra), eta berrogeialdian hiru aste bete, bere txofer taldean kasu positibo bat antzeman zutelako.

«Sei egun daramatzat (azkenean bueltan) Tsagaan Khaden eta, bakarrik, nire lehen azterketa da», dio.

«SALBATU TXOFERRAK»

Neurri horiek guztiek asko motteltzen dute mugako pasabidea. Arazoa: kargamentua garraiatu aurretik, kamioilariek ez dute inolako soldatarik jasotzen.

Amorruz beterik, joan den astean agertu ziren batzuk Ulan Batorren, Mongoliako hiriburuan. Txaleko horiak jantzita, «salba itzazue txoferrak» eslogan garbia plazaratzen zuten karteekin ibili ziren. «Pobreziaren ertzean gaude», esan zuen Yalagdashgui Naranpil mongoliar txofer sindikatu bateko arduradunak.

Txinak ikatzaren premia du bere zentral elektrikoak martxan jartzeko.

Are gehiago herrialdean ko-

rronte mozketak etengabeak diren honetan. Mozketa horiek lotuta dute, besteak beste, emisio kutsatzaileak gutxitzeko jarritako mugekin, argindarraren prezioekin eta eskasiarekin.

Mongoliak 35 milioi tona ikatz esportatu zituen Txinara iaz. Urtarriletik herena baino gutxiago saldu du, mugako osasun murrizketengatik.

Li Keqiang Txinako lehen ministroak elkarrizketa bat izan zuen mongoliar homologoarekin joan den astean eta biek

adostu zuten muga pasatzeko baimendutako kamioien kopurua bikoiztea.

Joan den hilabetean Mongoliak antzeko arazoa izan zuen Errusiarekin duen mugan, Alatanbulageko postuan, hain zuzen.

Moskuk eta Ulan Batorrek itxita zegoen postu hori urriaren 6an ireki zuten kamioiak berriro pasatu ahal izateko.

Gobernu mongoliarrek urtearen hasieran itxi egin zuen muga postu garrantzitsu hori, pandemiaren hedapena galarazteko neurrien artean.

Gobernuaren datuen arabera, Mongolian populazioaren %65,5ek dagoeneko covidaren aurkako txertoa jaso du eta 324.000 pertsonak hirugarren dosia ere jaso dute. Datu horiei esker, muga itxiera arintzea erabaki zuen, baina oraindik ez da nahikoa Txinako mugan zain dauden kamioilarientzat.

IKATZAREN SALMENTAK GOIAN JARRAITU DU

Mongoliako Errepide eta Garraio Ministerioaren arabera, Txinara egindako esportazioen kopuruak goian jarraitu du, pandemiaren aurkako neurriak gorabehera. Neurri horien artean, Erlianeko muga itxi zuten agintariek.

Txina eta Mongoliaren arteko merkataritza fluxua bermatzeko, beste lau muga pasabide erabiltzen dituzte: Bayankhoshuu, Khangimandal, Gashuunsukhait eta Shiveekhuren.

Aurten dagoeneko Mongoliak 6,12 tona burdina eta milioi tona kobrezko kontzentratu baino gehiago esportatu ditu Txinara. Horrez gain, aste batean ikatzez betetako 3.000 kamioi eta 982 tren bagoi garraiatu zituztela adierazi zuen Ministerioak, pandemiaren arazoak merkataritza ez duela gelditu ikusarazteko. Mongoliako Gobernuaren arabera, urriaren kamioiz eramandako ikatzaren kopurua %11,2 igo zen eta trenez garraiatua, %77,3. Mugako pasabideak hobetuz eta ikatzaren kalitatearen galerak saihestuz, Mongoliaren eta Txinaren arteko ikatzaren garraioa urtean 8 eta 10 tona bitarte handituko dela espero dute bi gobernuak.



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Zeren beldur zara?

Milton Glaserrek Vimeo plataforman eskuragarri dagoen zazpi minutuko bideoan botatzen digun galdera da. Ilustra-

tzaile eta diseinatzaile estatubatuar hau XX. mendearen hasieran jaio zen, eta, batez ere, disko eta liburuatarako egindako diseinuengatik da ezaguna, "I Love New York" kanpainarako logotipoaren sortzailea delako. Laburra izan arren, Glaser jaunak partekatzen duen mezuak interpelatu egiten gaitu, zazpi minututan aurrez aurre jartzen gaituelako gizaki garen aldetik dugun beldur handietako batekin: porrot egiteari diogun beldurrarekin.

Porrot hitzak konnotazio ikaragarriak ditu autoestimurako. Ingudea bezain hitz astuna da, edozein unetan gure gorputz bigunetara eror daitekeena eta birrindu gaitzakeena. Gure etsipenaren eta beldurraren gainetik planeatzen duen putrea da. «Porrota» botere handia eman diogun hitza da, gehiegizkoa. Hainbeste, non jada ez baitago gutako bakoitzaren esku, beste esku uzten baitugu. Ondo pentsatuz gero, geure buruarentzat zerbait sortzen dugunean, geure berezko motibaziotik egiten dugu. Beraz, porrot hitza desagertu egiten da, saiakera bakoitzak lortu nahi dugun horretara hurbiltzen baikaitu.

Porrotak baliabide gehiagorekin, modu adimentsuagoan eta ezagutza handiagoarekin berriro hasteko aukerak dira. Ezagutza dagoeneko ibilitako bideek ematen diguten egunero-ko esperientziaren bidez lortzen dugu. Koadrorik onenak, bertso-rik onenak, kanturik onenak eta gure lorpenik handienak ez dira egun batean loratu, saiakerak behar izan ziztuzten argia ikusteko. Esperientzia da poliki-poliki irakasten duena eta

okertzen garenean gurekin eramaten duguna. Saiakera bakoitzean ikasteko gai bagara, "porrotak" zentzua izango du berez.

Dena kontrolpean dugun erosotasun eremuan ez da porrot egiten, baina ez da hazten. Geure segurtasunak mugatzen gaitu. Ahalegin kontzientea egin behar da ezezagunari, menderatzen ez dugunari eta gure helburura eramango gaituen porrotari aurre egiteko, indartsu eta sortzaile bihurtuz. Horrek borondate indar handia eskatzen du, porrotetatik ikastea ez baita beti erraza izaten. Segurtasunik ezari aurre egin behar zaio, arbuioaren beldurrari, besteek gure estropezuez barre egingo duten beldurrari, eta horregatik babesik ezari.

Bizitzan gutako bakoitzari agertzen zaizkigun estutasunek balio handia dute, bai gure garapen pertsonalera-ko, bai ahaleginaren balioa ulertu eta eskuratzeko. Sortzen ari zaizkigun

zailtasunei esker, sendatzen eta trebetasun berriak eskuratzen ari gara, aurrean ditugun erronkei aurre egiten laguntzeko. Oztopo horiek pentsamenduak, beldurrak, egoerak eta abar izan daitezke.

Garrantzitsuena da zailtasun horiei erantzutea, eta jakitea zergatik dauden hor, zer paper jokatzten duten guretzat eta zer ikasgai atera dezakegun. Ikaskuntza baliotsu bat dago, eta hori deskubritu dezakegu, baldin eta jabetzen bagara zer mota-tako gauzak saihesten ditugun, zeri ez diogun aurre egiten, zer gauza baztertzen ditugun automatikoki, lortu ezin izango ditugula uste dugulako. Benetan garrantzitsua eta baliotsua dena ez dago arrakastarekin lotuta, ezta besteen aintzatespenarekin ere; prozesuan zehar, geure buruari buruz, lor ditzakegun ikaskuntzetan datza. •

saioaaginako@gmail.com



Esperientziak irakasten du, eta okertzen garenean, gurekin eramaten dugu.

Gorka RUBIO | FOKU

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Euskal eskuina garai bateko FSLN goraipatzen?

Badira bere garaian Nazio Askapenerako Fronte Sandinistaren aldekoak zirenak eta gaur egun FSLN eta Daniel Ortega kritikatzeko dituztenak. Zuzena edo okerra izan Nikaraguako presidentearen kontrako salaketa hori, normala ere bada bat baino gehiago lehen haren alde egotea eta orain, aldiz, haren kontra jotzea; egoera aldatu delako, norbera aldatu delako edo orain kritika egiten duen horrek egiazki aldatu dena FSLN izan dela pentsatzen duelako. Xelebreagoa da, ordea, 80ko hamarkadan FSLNren kontra zegoen zenbaitek orain orduko gerrilla goraipatzea, askatasun haizea izan zela esatea, gaurko FSLNren kontra egiteko argudio bila.

Euskal eskuinaren «dohaina» da hori: garaian jokabide bat izan eta historiak jokabide hura okerra zela egiaztatzean jokabide haren aztarna desagertzen saiatzea. Horregatik gogoratu behar da orduan euskal eskuina Latinoamerikako gerrillen kontra zegoela, El Salvadorko Jose Napoleon Duarte presidentea bezalako agintariak babestu zituela eta AEBen esku-hartzearen egin ziola.

“Jaun-goikua eta Lagi-zaña” leloaren itzalpean jokabide atzerakoiak izan zituzten makina bat gaitan, zela abortua, zela homosexualen eskubideak, zela... Eta ulergarria ere izan zitekeen hala izatea familia sozial eta politiko horren jatorria eta oinarriak kontuan hartuta, eta txalotzekoa ere izan daiteke horietako askotan eboluzionatzea eskubideen aitortzearen eskutik.

Beste gai askotan, ordea, ez da inongo zintzotasunik egon, eta oraindik ere komeni da gogoratzea euskal eskuinak NATOren alde egin zuela, Lemoizko zentrala egin nahi zuela, euskara batuaren kontra egon zela, CIARI laguntza eman ziola, Rafael Veraren laguntzaile sutsu izan zela, presoan dispersio politikaren diseinuan parte hartu zuela, Ertzaintzaren jokabide okerrak

–tratu txarrak eta espioitza, esate baterako– babestu zituela, ustelkeria errotzen utzi zuela, Korrika eta “Euskaldunon Egunkaria” espresuki boikotatu zituela, “Egin” erakundeetatik diskriminatu zuela adierazpen askatasuna kaltetuz... Hori dena izan da euskal eskuina, eta hori izan izanak eta inoiz autokritikarik txikiena egin ez izanak definitzen dute askotan jeltxideen gaur egungo jokabide zinikoa. *Green* dira Zubietako erraustegiaren isuria ezkutatzeko bitartean.

Euskal Herriaren iraganetik etorkizunerako igarobidea zailtzeko prest daudela gero eta nabarmenagoa da. Diotenez, Arnaldo Otegiaren Eibarreko hitzaldi famatua hedabideetan zabaltzeko eta Urriaren 18ko Adierazpenak sortutako giro baikorra kakazteko ahalegin bizian aritu ziren Sabin Etxetik. Dei asko egin omen zituzten

Diotenez, Arnaldo Otegiaren Eibarreko hitzaldi famatua hedabideetan zabaltzeko eta giro baikorra kakazteko ahalegin bizian aritu ziren Sabin Etxetik

bertatik batera eta bestera. Ez dituzte gustuko aurrerapausoak, horiek ezker abertzalearen umiliazioa ez badakarte beraiekin, jakin badakitelako zintzotasunez atzera begiratu gero beren burua ere biluzik geratuko litzatekeela. Esana utzi zuen Josu Jon Imazek Lizarragarazitik aldentzeko: EAJk ezin du onartu trantsizioan erratu egin zenik.

Ez dituzte gustuko, ez, aurrerapausoak, horiek geroa begira elkarlan, elkarriketa edo protagonista berriak ekar baditzaizkete. Nahiago dute dagoena dagoen moduan geratzea, egonean egon, arian-arian dena txirrotzen bada ere.

Nikaraguara bueltatuz, orduko «*La contra*» bilakatu ez ote diren galdetu beharko liokete jeltxideek beren buruari. •

XILABAKO FINALA

Bertsolariek, bertsozaleek eta bertsoak Donibane Lohizunen dute hitzordua

 **BERTSOLARITZA** / Jon Garmendia

Donibane Lohizuneko Jai Alaik soineko ederrena jantziko du gaur arratsaldean Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko VI. Bertsulari Txapelketaren finala hartzeko. Sei bertsolari igoko dira oholtzara lehendabiziko final parekidea elkarrekin josteko; puntadaz puntada, silabaz silaba, norbera beretik eta era berean taldean, plazari neurriko finala janzteko.

MADDALEN ARZALLUS ANTIA

«Eguneroko nire lanak zeharka prestakuntzarako balio izan dit»



Guillaume FAUVEAU

Nor da Maddalen Arzallus? Zertan ari da egun?

Maddalen betikoa da. 30 urteko neska bat, 20 urte zituenean zen pertsona bera eta, era berean, desberdina. Bertsolaria, lanean telebistan ikusiko duzue segur aski, horretan pasatzen dut orain denbora gehiena. Bestela, etxekoen eta lagunen pertsona bat eta afizioz bertsolaritzarekin segitzen dut, ahal dudan denbora gehien eskainiz.

Orokorrean, nola ikusi duzu txapelketa? Zer azpimarratuko zenuke?

Orokorrean txapelketa maila onean ikusi dut, ez ditut saio guztiak ikusi, baina batzuetan izan naiz eta gustuz entzun ditut besteen saioak. Norbere saioak gehiago kostatzen da baloratzea. Jendea ilusioz sumatu dut, gazteak ilusioz sumatu ditut eta hori da

azpimarratuko nukeena.

Zure saioak nolakoak izan dira? Zer prestakuntza egin duzu? Bakarrik aritu zara lantzen, taldean?

Uste dut zortea izan dudala nire saioetan, jende kopurua alde batera utzi –nahiz eta jende kopuruz nahiko ongi joan diren–, saio beroak izan dira, jendeagatik, aretoagatik edo denagatik agian. Esker oneko saioak izan dira eta kantatzeko aski errazak alde horretatik.

Nire prestakuntzari dagokionez, zoritxarrez denbora askorik ere ez dut nire baitatik gauzak egiteko eta batez ere taldean landu dut, bertso eskolan elkartuz ahal zenean. Astean behin behintzat bertso eskola bat izatea izan da nire prestakuntza. Horrez gain, eguneroko nire lanak hainbat gai lantzea ahalbidetzen dit eta

horrek zeharka prestakuntzarako balio izan didala esango nuke.

Covidak geldialdia ekarri zuen; zer on, zer txar ekarri dio horrek bertsolaritzari? Gizartea nola ikusi duzu?

Nik uste dut covidaren geldialdiak pertsona bakoitzari ekar diezaiokeela onetik zerbait. Hau da, hausnartzeko denbora izan dugu. Nire kasuan horrela izan da eta esango nuke, kalteez gain noski, onurak ere ekarri dizkidala. Lehen ez bezala, momentu honetan tarte gehiago hartzen ditut niretzako, ezezko gehiago esateko arazorik ez dut eta uste dut alde horretatik pertsonalki bertsolari gisa on egin didala. Aldiz, bertsolaritzari ez dut uste on handirik ekarri dionik edo, behintzat, momentuz ez dut gehiegi ikusten.

Berrasmatzeko bide bat bai eman dio eta berrasmatzea beti da ona, baina hainbat saio mota guztiz geldituak izan dira eta hori da izan zitekeen galerarik handienetako bat.

Zer espero duzu finalaz? Egia al da anaia dagoen finalean kantatzea alferrikako zerbait dela, agur batean kantatu gisa?

Finalaz espero dudana da nire buruarekin pozik geratzea eta publikoa pozik geratzea bai nirekin eta bai orokorrean saioarekin, horrek ematen du asetasun handiena, emaitzez aparte. Emaitzei begira, badakigu final honetan Euskal Herriko Txapelketarako txartelak ere badirela jokoan, baina txapelketa hori urte baten buruan da eta nik ez dakit hemendik urte batera non izango naizen. Momentuz, nahiago dut finalean zentratu.

Bai, agur batean kantatu

nuen gutxi gorabehera Ametsek irabazia duela txapela. Noski, txiste bat zen baina denok badakigu bera izango dela segur aski areriorik zailena. Baina final batek bestelako helburuak ere baditu eta dena ez da irabaztea.

Begira diezaiegun finalistei.

Odei Barroso: Bertsolari zintzoa bezain fina eta, batez ere, aspaldiko laguna.

Ametz Arzallus: Oholtza gainean izanen dudan lagunik eta areriorik handiena.

Miren Artetxe: Emakumezkoen bertsolaritzak eman duen bertsolari onenetako bat.

Maddi Ane Txoperena: Bertsolari eta pertsona gisa handitzen ezagutu dudan garai bateko neska txikia.

Patxi Iriart: Haurtzarotik bertsokide izanez, finalean ondoan izatea ilusioa egiten didan pertsona.

ODEI BARROSO GOMILA

«Aitzineko txapelketetan izan ditudan gabeziei begira egin dut lanketa: autokonfiantza, segurtasuna eta kontzentrazioa»

Nor da Odei Barroso?
Baionan bizi den urruñarra. Bertsularien Lagunak elkartearen bideogintza ari naiz lanean.

Txapelketari buruzko zure inpresioa.
Orokorrean txapelketa ongi joan dela iruditzen zait. Joan den urteko edizioa bukatu gabe gelditu zen eta aurten bertsolari eta antolatzaileek txapelketa bururaino eramateko zuten nahia sumatu dut. Giro onean joan dira saioak eta batzuetan guttiago, besteetan gehiago, baina jendea hurbildu da saioetara.

Zure saioei buruzkoa iritzia, zein prestaketa egin duzu?
Kantatu dudana bi saioetan giro beroa sumatu dut, entzulea esker oneko eta kantukideen arteko giroa goxoa izan da.
Nire aldetik ez dut bertso eskola askorik egin lagunekin, azken garaiotan agenda aski betearekin nabil eta ez zait erraza egin besteekin biltzeko tartea aurkitzea. Hala ere, elkartzeko aukera izan dudanean gustura ibili naiz kantu kideekin txapelketa prestatzen.

Pertsonalki egin dudana lanketa barnera begira egin

dut, teknikari begira baino aitzineko txapelketen kontestuan izan ditudan gabeziei begira egin dut: autokonfiantza, segurtasuna eta kontzentrazioa.

Covidaren ondorioz geldialdia txapelketan, geldialdia gizartean. Zertan egin dio horrek kalte kultur arloei?
Uste dut geldialdiak orokorrean kulturari kalte egin diola, bigarren plano batean gelditu balitz bezala denbora batez. Bizitzen ari garen garai korapilatsu honetan iduri luke premiazkoari besterik ez zaiola heldu behar, eta ulertarazi digute, nonbait, kultura adibidez ez dela premiazkoa. Kontestu horretan, Zuberora, Lapurdi eta Nafarroa Beherean ez da saiorik egin ahal izan denbora luze batez eta etenaldi horretatik ateratzea jende anitzi kosta egiten ari zaiola erranen nuke.

Pantailen aroan sartu gaitu etenaldiak bete-betean, eta bertsolaritza ez da preseski pantaila bidez jasotzeko egindako zerbait...

Zer espero duzu finalaz?
Finala kolektiboaren nahien eta norbanakoaren helburuen arteko batuketa bat izanen

dela uste dut.
Bakoitzak bere helburu pertsonalak izan ditzake, baina denok dakigu handiagoa den zerbaiten parte garela, eta bereziki gurea bezalako txapelketa batean.

Begiratu diezaiegun gainontzeko finalistei.
Amets Arzallus: Bertso eskolako irakasle gisa ezagutu nuen Amets, eta izugarri ikasi nuen harengandik. Iruditzen zait energia berezi bat sortzen

duela kantuan hasten denean, barneraino sartzen dena. Bertsolari bikaina.

Miren Artetxe: Mirenekin ere aspalditik dut harremana eta izugarri transmititzen du bertsotan aritzen denean, baita hortik kanpo ere. Fina bezain zorrotza, espero ez den ideia bat badu beti eskaintzeko.

Maddi Ane Txoperena: Maddi Aneren bertso ibilbidea ttikitatik ezagutzeko

aukera izan dut eta ibilbide bikaina egiten ari dela iruditzen zait. Izugarri poztu naiz finalera iritsi delako. Bere bertsoek beti uzten dute zerbait nigan.

Patxi Iriart: Adin berekoak gara Patxi eta biok eta bertsotan hasi nintzenetik ezagutzen dut, hasieran bertsotatik eta gerora pertsonalkiago ere. Goranzko ibilbide ederra du Patxi eta txapelketa ederra eginaz iritsi da finalera. Kolpeko bertsolaria, harritzen dakiena.

Maddalen Arzallus: Bertso eskolan hasi nintzenetik dut harremana Maddalenekin. Nortasun handiko bertsolaria, segurua eta fina. Jendearengana iristeko gaitasun handia duela iruditzen zait.



Guillaume FAUVEAU

AMETS ARZALLUS ANTIA

«Isilaldia ongi etorri zitzaidan distantzia eta arnasa hartzeko»

Nor da Amets Arzallus? Zertan ari da egun?


Badira urte batzuk bertsotatik bizi naizela, eta saiatzen naiz bizi apustu eder eta konplikatu horri eusten. Pandemiak alde askotatik biluzik gaudela erakutsi dit, baina hasi gara berriz ere martxan.

Tarteka bertsoarekin osagarri diren beste abentura batzuetan sartzen naiz, kazetaritzan, edo idazketa lan batzuetan, bertsolari bizimoduak ematen didan pribilegio bat bezala hartzen ditut lan horiek.

Orokorrean, nola ikusi duzu txapelketa?

Egia esan, asteburuetakoa martxagatik batetik, eta PASS-aren exigentziagatik bestetik, kantatzen nuen saioetara bakarrik joan ahal izan naiz. Beraz, ez dezaket gauza handirik esan, ikusi eta entzun dudak guziaz mikrofono ondotik izan delako, eta hortik zaila da perspektiba orokor bat izatea.

Gabadin izugarri giro beroa zegoen, eta kantu lagunak oso ongi ikusi nituen orokorrean, final-laurden bat izateko uste dut oso bertso maila duina izan zuela.



Guillaume FAUVEAU

MIREN ARTETXE SARASOLA

«Espero dut jendeak bertso maila on bat ikustea Iparraldean, badagoelako»

Nor da Miren Artetxe?

Gaur egun Hendaian bizi ez den hendaiarra. Bertsolaria eta bertsozalea. Gaur egun irakaslea naiz unibertsitatean.

Orokorrean, nola ikusi duzu txapelketa?

Ez dakit oso ongi, nire bi saioetara bakarrik joan naiz. Ikusi dut jendeak erantzun duela, publikoa bertso gose

zela eta batez ere gure artean giro ona izan dela. Hori azpimarratuko nuke, gure arteko giro ona eta kantatzeko gogoa, pandemia batetik gatzelako eta bertsotan aritzea poz bat delako denentzat. Alde txarra, berriz, hori, pandemia bat izan dela tartean, txapelketa hasi genuen, gero utzi, gero berriz hasi... publikoaren aldetik ere

ez da izaten ari beste txapelketa batzuetako erantzuna, ulergarria dena. Espero dut finalean giro beroa izango dugula.

Zein prestakuntza egin duzu?

Bertso eskola bat egin dut. Hernani eta Donostia inguruan elkartzen gara emakume bertsolari batzuk

eta horiekin egin dut bertso eskola bat. Baina lanean tope aritu naiz azken aste hauetan eta ez dut bertso eskola gehiago egin. Plazetan ibiltzeak abantaila du makina ez dela hainbeste herdoiltzen eta bestela, pentsaketan aritu naiz, oinez eta korrika nabilenean, pentsaketan.

Covidak geldialdia ekarri zuen; zer on, zer txar ekarri dio horrek bertsolaritzari?

Nik uste dut dena txarra izan dela. Geldialdiak bai pentsarazi digu zein garrantzitsua den elkartu ahal izatea eta zein garrantzitsua den jendearen gertutasuna bertsotarako eta alternatibak

zeinen diren pobreak, nahiz eta atzeman behar izan ditugun. Uste dut geldialdi horrek ez diola mesede egin bertsolaritzari; dena geldi, ziurtasun eskasa, *monogai* bat denbora guztian... Zaila da horretatik alde egitea eta, aldi berean, horretaz ere irakurketa kritiko bat egin behar da bertsolari bezala eta ez da erraza. Neurriak kritikatzeko badituzu badirudi negazionismoan erortzen zarela eta dena onartzen baduzu, ez duzu bertsolariaren rol kritikoa betetzen.

Zer espero duzu finalaz?

Hipokrita izan gabe, bi gauza. Bat, saio ona izatea

Mauleko saioan tentsio gehiago zegoen, Gabadikotik ariketa ezberdina izan zen. Gero Bardozen izan nintzen entzule, baina han ere arrebak kantatzen zuen, eta ez nuen bertsoekin gozatu ahal izateko behar den sosegurik izan. Pentsatu nuena izan zen azken urteotan ni ere etxekoei trantze batzuk pasarazia naizela.

Zure saioak nolakoak izan dira? Zein prestakuntza egin duzu? Bakarrik aritu zara lantzen, taldean?

Gabadin gustura aritu nintzen oso, zortziko handian lasaitasun pixka bat hartu eta ondorengo ariketa denetan pozik eseri nintzen, txapelketan ez da erraza izaten kantuan gozatzea, eta han lortu nuen.

Maulen txapelketetan ohikoagoa den gorputzaldia izan nuen, giroa hotzagoa zen, beraz nire baitaraturik egon nintzen, ahal bezain

kontzentraturik, bertso bakoitzak lana eskatzen zuen, eta eserialdi bakoitzak ere bai.

Prestakuntza lanerako ez dut beste urte batzuetan bezainbat denbora izan, baina saiatu naiz etxean lanketa pixka bat egiten, errimak eta bestelako gauzak, bertsotarako prestakuntza beti da esperimentazio bat.

Taldean ere bildu gara pixka bat Hendaia aldean, baina ez naiz beste batzuk bezain fin eta konstantea izan.

Covidak geldialdia ekarri zuen; zer on eta zer txar ekarri dio horrek bertsolaritzari? Gizartea nola ikusi duzu?

Badira urte batzuk bertso plazen eta txapelketen erritmora bizi naizela, eta nahiz eta kolpez eta uste gabe etorri zen, isilaldia ongi etorri zitzaidan, bai distantzia hartzeko eta bai arnasa

«Prestakuntzarako ez dut beste urte batzuetan bezainbat denbora izan, baina saiatu naiz etxean lanketa pixka bat egiten. Bertsotarako prestakuntza beti da esperimentazio bat»

«Bardozeko saioan entzule izan nintzen. Arrebak kantatzen zuen eta ez nuen bertsoekin gozatu ahal izateko sosegurik izan. Pentsatu nuen azken urteotan ni ere etxekoei trantze batzuk pasarazia naizela»

hartzeko.

Baina hori kontu pertsonal bat da, uste dut kolektiboki bertsolaritza konkretuki, eta kultura orokorrean zein zaurgarria eta hauskorra den ikusteko balio izan duela, eta agintariek ez dutela oinarrizko beharizanen artean kokatzen, baizik eta denbora-pasen multzoan. Uste dut horretaz ohartzeko eta gogoetatzeko balio dezakeela aro bitxi honek.

Gizartea, aldiz, gertatzen ari zenarekiko eta zetozen neurriekiko uste nuen baino obedianteago ikusi dut, eta horrek lasaitu baino gehiago kezkatu egiten nau. Nahiz eta oso informazio nahasiaren erdian ibili garela egia den, eta kokatzea ez zen erraza, orokorrean egoera berri batekiko oso izpiritu kritiko gutxi erakutsi dugula iruditzen zait.

Zer espero duzu finalaz?
Bertsokideak ezaguturik uste

dut maila politeko finala izan daitekeela. Nik uste dut gure artean aski bertso molde ezberdinak badirela, eta nahiz eta txapelketak denak uniformizatzen gaituen pixka bat, uste dut finalak aniztasun eta aberastasun hori erakuts dezakeela. Uste dut hasi zenetik hona Xilaba gora doan txapelketa bat dela, eta aurtengoak ea beste pauso bat ematen laguntzen duen.

Egia al da arrebak esan bezala Amets dagoen finalean kantatzea alferrikako zerbait dela?
Ez. Uste dut umorez eta ironiaz esandako zerbait izan zela, eta hala hartu behar dela.

Begiratu diezaiegun gainontzeko finalistei. Nola definituko zenituzke bertsokideak?
Izenen hori ez da erraza... Ea besteek zer dioten.

orokorrean, jendeak ikustea bertsolaritza maila on bat Iparraldean, badagoelako. Eta, bestetik, nire aldetik saio on bat egitea eta ahal dela Euskal Herrikorako sailkatzea. Nabarmenduko nuke aurten finaletik kanpo bertsolari on asko gelditu direla, asko gazteak, eta horrek esan nahi du badirela Iparraldean plazaz plaza ibiltzeko bertsolari on asko.

Begira diezaiegun gainontzeko finalistei.
Oier Barroso: Pertsona biziki interesgarria diskurtso aldetik, sekulako bertso maila duena, oso estilo pertsonala duena eta merezi lukeena plazetan



Guillaume FAUVEAU

entzuten duguna baino gehiago entzutea.

Amets Arzallus: Amets Arzallus, horiek dira bere kalifikatibo onenak. Euskal Herriko txapeldun izandakoa, txikitatik gure bertso eskolako pertsonarik argienetakoa eta bertsotan izugarri ona betidanik. Bere bertsokera dotoreetan dotoreena.

Maddi Ane Txoperena: Nire bertso eskolako ikaslea izan zen eta berekin kantatzeak ilusio berezia egiten dit. Iruditzen zait bertsotan izugarri ondo egiten duela eta plazer bat da bera plazetan entzutea. Uste dut

plazek ere behar dutela Maddi Ane.

Patxi Iriart: Etengabe irri eginarazten didan pertsona bat da, sekulako umorea duena, ez dena asmatzen ahal nondik aterako den. Uste dut kolpe handiak emango dituela finalean eta uste dut plazak behar duela hortik ere.

Maddalen Arzallus: Amets Arzallusen arreba izatetik askoz haratago doa. Pertsonalitate oso-oso berezia, umore oso berezia, fina, zorrotza eta erantzun azkarrekoa. Bertsotan arzallustarra nolabait ere, oso maila onekoa.

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

«Suertatzen bada, buruan bueltaka ditudan hainbat ideiari forma ematea gustatuko litzaidake finalean»

Nor da Maddi Ane Txoperena? Zertan ari da egun?
Abizenarekin, batez ere kazetaria (denbora gehiena horretan ematen dut): gaur egun BERRIAN, Euskal Herria sailean, Andoaingo erredakzioan (tarteka etxetik, koronabirusaren ondorioz). Aldika bertsolaria eta idazlea ere bai, denbora librean. Izen soilez, gaur egun Lesakan bizi den emakumea, Hendaian sortua, nahiko inuzentea eta ameslaria, lagunkoia, parrandazalea eta geldirik egoten ez dakiena.

Orokorrean, nola ikusi duzu txapelketa? Zer azpimarratuko zenuke?
Lanaren eta bertze hainbat konturen ondorioz nahi baino saio guttiagotara joateko aukera izan dut, beraz, zaila egiten zait osotasunean baloratzea. Bertso maila polita ikusi dut halere, oro har; entzuten eta kantatzen aritu naizen saioetan gozatu egin dut; eta giro ona sumatu dut bertsolarien artean: hori ederra da. Publiko aldetik, ez da bereziki jendetsua izan, baina esker onekoa bai.

Zure saioak nolakoak izan dira? Zein prestakuntza egin duzu? Bakarrik aritu zara lantzen, taldean?
Makean eta Maulen kantatu dut, eta oso gustura aritu naiz, bereziki Maulekoan. Makeakoa zailagoa egin zitzaidan: urduriago nengoen, urduriegi aukeran, eta saioa

bera ere ez zen dirdiratsua atera orokorrean, nik uste. Maulen gozatu egin nuen. Prestakuntza Lesakan eta Erratzun egin dut, batez ere: bertso eskola bat sortu dugu Alazne Untxalo, Saioa Alkaiza, Iker Gorosterrazu eta laurok, eta oso eroso eta gustura aritu naiz haiekin, eta hala segitzea espero dut. Haiek Nafarroako bertso txapelketan ari dira, eta aitzakia horrekin udaberri partean hasi ginen elkartzen, udan serioxeago, eta udazkenean astero. Bertze bertso eskola batzuetara ere joan naiz tarteka: Bortzirietakora eta Hernanin bertze bertsokide lagun batzuekin sortu dugunera. Lagunarteko babesa eta entrenatzeko espazio seguruak sortzea ezinbertzekoa zait; bertzela ezinen nuke oholtzara atera. Bakarka, berriz, nahi baino gutiago aritu naiz kaiereko lanean. Teknika baino pentsamendua lantzen dut agian gehiago, baina nahi gabe.

Covidak geldialdia ekarri zuen, aitzineko txapelketa bertan behera gelditu zen. Tira, hausnartu behar balitz, zer on eta zer txar ekarri dio horrek bertsolaritzari?
Iaz txapelketa bertan behera uzteak pena handia eman zidan: bat-batean eten zen, ja fase bat pasatuta eta urduritasuna-eta gainean genituenean...! Saio anitz ere galdu egin dira, eta oraindik formatu batzuk ez dira guztiz berreskuratu, nik gehien

«Lagunarteko babesa eta entrenatzeko espazio seguruak sortzea ezinbertzekoa zait; bertzela ezinen nuke oholtzara atera. Bakarka, berriz, nahi baino gutiago aritu naiz kaiereko lanean»

maite ditudanak, bertzeak bertze: bertso bazkariak, poteoak... Nire kasuan, bertso idatziak gehiago lantzeko aukera eman dit, adibidez. Publiko aldetik, osasun pasea eskatzeak uste dut eragina izan duela Xilaban. Ikusiko dugu finalean...

Zer espero duzu finalaz?
Niri dagokidanez, gustura gelditzeko moduko saioa egitea gustatuko litzaidake, eta ale politen bat edo bertze uztea. Ahal bada buruan bueltaka ditudan hainbat ideiari forma ematea ere bai, suertatzen bada.

Jar gaitezen finalean izango dituzun bertsokideei begira.
Amets Arzallus: Faborito argia da. Maulera ni entzutera etorri ziren batzuek erran zutenez –eta haiekin bat egiten dut– ‘bertze liga batean’ ari da. Bertsoa nahi gabe bezala egiten duela ematen du, rodajea nabari zaio, ederki betetzen du bertsoa...

Odei Barroso: Errima estukoa

eta doinu motzetan fin, kantaera ederra, asko apreziatzen dudan bertsolaria da. Rapean ere segitzen dut, eta nabari zaio batetik bertzerako lotura, bi arloetan.

Miren Artetxe: Elkarrekin aritu ginen Xilabako taldekakoan, eta ni behintzat oso gustura. Ondokoa zaintzen duen bertsokidea da. Azken urteetan plaza anitzetan aritu da, ongi merezita. Umorean eta ideietan zorrotz eta fin.

Maddalen Arzallus: Txiki-txikitatik ezagutu arren, azken urteotan bertsotan gutxien entzun dudana da agian, baina ederki ari dela badakit. Segurtasuna transmititzen du, eta konstantea da; ahotsa ere ederra.

Patxi Iriart: Lan egin duela erakutsi du txapelketa honetan (edo hala dirudi behintzat). Umorea eta estilo propioa ditu, eta uste dut emanen diola zerbait berezia finalari. Gainera, Hendaia-Urruñakoa ez den bakarra da, kar-kar...



PATXI IRIART HIRIBARREN

«Gozatzera joango naiz finalera, plazer hartzera eta, ahal bada, ematera»

Nor da Patxi Iriart?

Baionan sortua banaiz ere Hiriburukoa naiz (Lapurdi) eta ikasketengatik handik joan banintzen ere, berriro Hiriburun bizi naiz. Egun, Euskal Herriko Laborantza Ganberan lan egiten dut Ainhize-Monjolosen, laborantza herrikoi eta iraunkorraren alde; Ipar Euskal Herria da gure eremu lehena eta bere aldeko ahaleginean iragaten dut astea Nafarroa Beherean dagoen EHLGren egoitzan.

Nola ikusi duzu txapelketa?

Ez ditut txapelketako saio guztiak ikusi ahal izan. Aitzin aipatzen nuen gisa, nire lanarekin buru-belarri aritu bainaiz. Udazken partean Lurruma antolatzen dugu, bertako nekazarien sostengu eta agerpen gisa, eta aurten Lurruma aski berezia izan da, Arbonako lur okupatuetan; beraz, azken bi asteak horretan eman ditut.

Bertsoa.eus-en bidez eman diot behakoa halere, eta ahal izan dudalarik lagunen saioak ikustera ere joan naiz, nolabait sostengu ematera. Bertsoaldi on batzuk, bertsoaldi kaskar batzuk; enetzat, azken finean, hori da bertsoa.

Nola prestatu zara?

Bi lekutan kantatu dut. Hiriburuko saioa izan da lehena, alabaina niretzat,

emozio partikularra zuen saio horrek. Memento goxoa izan da. Tinko nintzen halere hasi baino lehen. Ni sortu naizen herriko plaza zelako, eta ez naiz usatua Hiriburun kantatzeaz. Hiriburu ez da bertso plaza handia, ez da euskararentzat plaza handia ere. Usu nire burua arrotz sentitu dut bertan; ikastolarik ez zen ttipia nintzenean, katixima ere Baionan ikasi dut nik. Eta horrentzat, berezia izan zen.

Bigarren saioa, Donibane Garazin, Izpuran, eta han ere goxoki pasatu zen. Urtero egiten dudan saioetako bat han, Libertimenduaren kari, eta horrek ongi sentitzera eraman ninduen. Ez dut erranen prestakuntza berezirik egin dudarik, baina bertso lekua topatua dut nik, ia astero biltzen gara lagunartean, zerbait jan eta kantuz aritzeko, eta noski, txapelketa hurbiltzen delarik zerbait gehiago lantzen dugu. Lehen aldiz ariko naiz finalean, eta xantza ukan dut, uste baitut nirekin kantuan aritzen direnen maila antzekoa dudala, beraz heietako edonork bete zezakeela toki hori. Nire kantu lagunak, Karlos Aizpurua, Gilen Hiribarren eta Mizel Mateo dira, eta aspaldiko partez kantura elkartu zaigun Ekhi Erremundegi.

Covida eta txapelketaren geldialdia. Zer txar ekarri du?



Guillaume FAUVEAU

Badu alde onik?

Gogoz etorri ginen txapelketara iaz, bertsolariak, gai-emaileak, epaileak, eta baita publikoa ere; etxetik atera eta zerbait partekatze gogoz baikin denak, eta aski zaila izan zen bertan behera gelditzea.

Bertsolaritzari covidak ekarri dion eragina txarra izan da, bestalde: saio anitz ezeztatu dira, eta jendeari eragozpenak sortu zaizkio, ez dakit Ipar Euskal Herrira begira zein den analisisa, baina zailtasunaz harago argi dut saio berrien sortzeko ahalegina ere egin behar dela, duela hogeit urte Libertimenduarekin egin bezala, adibidez, bertsolaritzaren lekua pertinentea baita, gozagarri izateko.

Zer espero duzu finalaz?

Lehen finala dut, eta aukera gisa ikusten dut; beraz, gozatzera joanen naiz, festa bat izanen baita niretzat, plazer hartzera noa eta ahal bada plazer ematera.

Begira diezaiegun gainontzeko finalistei.

Odei Barroso: Aspaldi ezagutzen dut, bertsotan hasi ginenetik ia, adin berekoak gara eta uste dut ongi ezagutzen dugula elkar. Hazten ikusi dut, eta ez soilik bertsolari gisa, plazer bat da Odei entzutea, eta rap musikan ere jarraitzen dut, hor ere nola hazi den, rapak bertsoari eta bertsoak rapari anitz ekartzen dio, eta uste dut Odeiren unibertsoa biziki interesgarria dela.

Amets Arzallus: Gauza handirik ez da errateko Ametsi buruz, dena errana dago, Amets entzutea beti da plazer, miresmen puntu bat badiot, eta herri honetan bera bezalako bertsolariak 50 urtetik behin sortzen direla erranen nuke.

Maddi Ane Txoperena:

Konprenitu dut bere lehen finala izanen dela, eta segur ez dela azkena izanen. Berak ez badaki ere gure etxean sartzen da egunero, kazetari gisa

jarraitzen dugulako. Ahizparen ibilbidea ezagutzen genuen lehen, baita anaiarena ere. Xantza ona opa diot finaleko.

Miren Artetxe:

Ni baino zaharxeagoa da, eta bertsotan gabiltzanetik mirestu izan dugu, gu baino bertsolariago zelako eta gaur egun ere gu baino bertsolariago delako. Badakit bertso munduan beste biderik eta ibilbiderik ireki duela eta alde horretarik ere badut miresmen zerbait.

Maddalen Arzallus: Aspaldi ezagutzen dut, bertso eskoletatik, bertsotan hasi ginenetik. Maddalene, etxetik ere bazuen noski, baina, etenaldiak izan baditu ere, ibilbide luze bat egin du, eta ikasketak eta abar direla medio, ez badugu ere anitz kointziditu, badut anekdota pozgarri bat: EHZ jaialdian uda honetan bertsotan egin dugu elkarrekin eta geroko hizketaldiarekin berriro harreman eginda plazer hartzeko.



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:



Ilargiak argitu gaitzala

**Miren Azkarate
Badiola**

Musika genero guztiak entzuteko joera izan dut beti, baina azken urteetan haur kankak bihurtu dira nire etxeko eta koxeko soinu banda. Genero guztietan bezala denetarik dago eta aurrekoan harri bitxi bat deskubritu nuen. Nahiz eta askotan entzunda nuen jada kanta, gaurkotasunarekin lotu nuen eta begiak irekitzeko balio izan zidan. Halaxe dio kanta horren zatitxo batek: «baina zuri amatxo, ilargi betea ekarriko dizut argi indarririk gastatu gabe etxea argi dezazun». Alvaro Yunque argentinarraren letra du abesti honek, Joseba Sarrionandiak euskarara itzulitakoa. Egilea duela 40 urte zendu zen, hau

da, ez daki XXI. mendean zein preziotan ordaintzen dugun argindarra. Baina premonizio baten tankera hartu diot nik, panorama ikusita gure ttikiak ilargia oparitu beharraren metafora egikaritzeko baita martxa honetan. Hori bai, giza-ki handinahiek ilargian dirua ateratzeko lehengai bat topatu arte noski!

Beldurgarria da argindarraren fakturak azkenaldian idatzita dakartzan kopuruak eta negua ate joka dugun honetan ordaindu beharrekoa oraindik ere handiagoa izango da datozen hilabetetan. Askotan gogoratzen naiz, batez ere data hauetan, espetxean maiz entzundako esaldiaz: «Nik nahiago dut hemen egon, egunean hiru otordu bero ditut eta teilatu bat lo goxo egiteko. Eta dena

nik ezer ordaindu gabe». Zein zuzenbide estatu dago lasai bere ardurapean kartzelan kalean baino bizi baldintza hobekak dituen norbait duenean? Estatu hori gaixorik eta ustela dago horrelakoak onartzen dituen bitartean; baita, gaur-gaurkoz argia, elektrizitatea edo bergailua ezin piztu edo ordaindu dabiltzan familia guztiak babesgabe uzten ditue-nean ere.

Egoera iluna da, eta ez soilik argindarra ezin dugulako guztiok ordaindu. Baina nik ez dut nire seme-alabek horrelako esaldiak entzuterik eta horrelako egoerak ikusterik nahi. Abestiari beste esanahi bat eman nahi nioke, beste mundu bat posible dela sinistu nahiko nuke.... •

Mitoak, idoloak eta pertsonak

Antton Izagirre

Ezin dut ukatu Altuna zalea naizela. Gaztetxo zela, eskola garaian ezagutu nuelarik, orain pilotarien artean txapelduna izanik, ia akatsik gabea izatea eskatzen diogu, edozein idoloren pare. Frontoiko haren mugimendu bizi eta azkarrak eta pikardiak txunditurik gauzka zaleok. Ez du parekorik, taula gainean Gatibu taldeko Alex Sarduiren dantzak niretzat parekorik ez duen moduan.

Baina zerbaitek erakartzen banau, gozamen hutsa egiten zait bere lehengusu eta botileroak aginduak, euskara ederrean, hitanoz, nola helarazten dizkion entzutea; indarra, konfiantza eta segurtasuna nola konektatzen dizkion ikustea.

Aldiz, azken finalerdian, ezerosotasuna eragiten zidan, Ezkurdiak eramane

zuen botileroa aldiro aholkuak gazteleraz ematen entzuteak.

Egun berean, Ogeta pilotalekuan, Aimar Olaizola agurtzeko mariatxiek, «*si-gues siendo el rey*», jarraitzaile guztiak kantuan jarri izanak, izan zezakeen asko populismotik. Hain ezaguna ez izan arren, euskaltzale modura, aproposago-tzat joko nukeen Panpi Ladutxe «Pilotari-pilotari» kantari jarri izan balute.

Modu berean haserrea eragiten dit Euskal Telebistak kirolari euskaldunak, egunez egun, gazteleraz hitz egitera nola behartzen dituen ikusteak. Agian, garaia da egoera honen kontzientzia hartu eta Altuna, Ezkurdia, Laso, Bengoetxe eta konpainia, zutik jarri eta Euskal Telebistaren aurrean adierazpenak euskara hutsez egiten hasteko. Horretan, pilotari bikaina izateaz gain, ikasgai bat emango

lieke Artolak, gaztelerazko katean ere, adierazpenak euskaraz eginaz, eredu baita pilotazale euskaltzale ororentzat.

Zentzu berean, ulertzen dut zein empatia gutxi erakutsi izan diedan Retegi edo Arretxe pilotariei, kirol porrotak jasotzen zituztenean. Ez dut sekula ulertu zergatik haien aitzak pilotari euskaldunak izanik, semeek ez duten jakin eta ahalegin txikiena egin, ikasi eta erabiltzeko.

Kirola, kasu honetan pilota, ez da sekula izan, ez eta izango ere kirol hutsa. Batzuetan mitoak sortu izan ditugu herri baten esentzia esplikatzen nahian, bestetan idolo akatsgabeak eraiki ditugu eredu modura, baina azken batean errealitatean ageri dena gizakia da, pertsona akastuna, betiere zertan hobetu badugula erakutsiko diguna. •



Naiara Aginako Bengoa

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

Irudi medikoen garrantzia minbiziaren erradioterapia teknika berrien sorreran

Orain dela 100 urte baino gehiago erradiologiak erabateko eraldaketa ekarri zuen medikuntza arloan eta gaur egun erabaki medikoen %90 baino gehiago erradiologo baten menpe daude. Erradiologia irudi medikoetan oinarritzen den espezialitate medikoa da. Minbiziaren kasuan ere, irudietatik atera daitezkeen ondorioek gaixoaren eboluzioan eragin handia daukate. Eta are gehiago, gaur egun, ebakuntzarik jasan ez dezaketen minbizia duten gaixoen artean, jakina da erradioterapia dela tumorea desagerrarazteko bide bat. Kanpo erradioterapiari buruz hitz egiten dugunean, argi dago irudiek ere sekulako garrantzia dutela tratamenduak izan dezakeen arrakastan.

Teknologiak aurrera egin du eta honekin batera kanpo erradioterapia teknika berriak sortu dira. Teknika berri hauen artean SBRT teknika aurkitzen da. SBRT siglak ingelesezko Stereotactic Body Radiation Therapy hitzetatik datoz, euskaraz «gorputzeko erradioterapia estereotaktiko» bezala itzultzen dena. Teknika honetan gaixoei jasotzen duten irradiazio dosia saio bakoitzeko nahiko altua da, erradioterapia konbentzionalekin alderatzen baldin badugu 10 bat aldiz handiago izatera heldu daiteke. Baina beste aldetik, SBRT-ren kasuan tratamendua 5 bat saiotara mugatzen da.

Jar dezagun adibide bat: erradioterapia konbentzionalean 1,5-2 Gy-ko dosia jasotzen da saio bakoitzeko eta SBRT teknikarekin, berriaz, 15-20 Gy-ko dosiak jasotzeko daitezke. SBRT teknikaren tratamenduaren kasuan, 3-5 saio izan ohi ditu, 2 astetan zehar ematen direnak; aldiz, erradioterapia konbentzionalean

5 bat saio izan daitezke astero eta 5 bat astetara luzatu daitezke tratamendua.

Teknologiaren aurrerapenaren ondorioz, immobilizazio teknika berriak agertu dira. Hauek, sabelaldea konprimitzeko eta nodulu edo tumorearen mugimendua minimizatze-ko aukera ematen digute. Beste aldetik, irudien bidez gidatu daiteke irradiazio prozesua eta honen ondorioz, irradiazioa ematen den bitartean noduluaren jarraipena egin daiteke. Beraz, irradiatu beharreko tumorearen bolumena txikiagoa izatea lortzen da, zehaztasun handiagoarekin ezagutzen delako honen kokapena. Horrek hain irradiazio dosi altuak erabiltzea ahalbidetu du eta hau izan da SBRT teknikaren sorreraren hazia.

Hala ere, irradiazio dosi hain altuak erabiltzeak ere bere ondorioak ditu: tumorearen eboluzioa aztertze-ko hurrengo hila- beteetan pazienteari ateratzen zaizkion irudietan erradiolo-

goek ezin dute tumorea eta irradiazioaren ondorioz sortutako orbaina bereizi. Ondorioz, erradiologoak ez dira gai zehazteko tumorea hazi edo txikitu den hurrengo azterketetan. Argi dago, sendagileek badituztela beste datu kliniko batzuk eboluzio horren joera ikusteko eta ondorioak ateratzeko.

Epe laburrera sendagileen taldeetan oinarritzkoa bilakatuko den beste espezialista bat sartuko da: adimen artifiziala. Adimen artifizial horren bidez aldi berean milaka irudi mediko aztertzea posible izango da eta datu kliniko- en arteko elkarrekintzak aurkitzeko abiapuntuak finkatuko dira. Erradiologiak orain dela 100 urte baino gehiago ekarri zuen iraultza bezala, adimen artifizialak ere bere iraultza ekarriko du hurrengo urte- etan medikuntza arloan. •



Erradioterapia.

{ koaderno } Iker Barandiaran

Mitifikatu egiten da ezagutu ez dena

Mitifikatu egiten da ezagutu ez dena, proiektio edo legatu bidez jasotatik irudikatzen dena. Benetan ezagututakoa ezin da mitifikatu, bere gauza on eta txarrekin bizi izan duzulako. Ezinezkoa da pasatutakoa –atzokoa bada ere– orain bizitzea, baina bada posible zertan zetzan ahalik eta argien erakutsi eta ikustea.

Horixe egin dute Arrasaten sortu berri den Ez Donk Amaitu-ko kideek. Errelatoa edo behintzat kontakizuna beste batzuek maneiatu aurretik norberak berea eraikitzen laguntzea. 40 urte bete dira 80ko hamarkada hasi zenetik; batzuentzat ugari, eta beste batzuentzat gutxi, baina oroimenak egiten ditu bere hautaketak, eta horregatik komeni da halakoetan gertaerak –gaziak zein gozoak– mahai gainean jartzea.

Askotan aldarrikatu da 80ko hamarkada errepikaezina izan zela, eta egia da garai bakoitzak bere ezaugarri propioak dituela, baina ezin gara iragana hobea izan zen ustearekin gelditu eta, horregatik, egiteari utzi eta etsi.

Dena dela, badugu hamarkada horretatik zer ikasi eta desikasi. Hala, punka bere zentzu zabal zein eraikitzailean bizi eta sinisten duten lagun hauek hamarkada intentso horretan Arrasaten izan ziren mugarriak azalera ekarri dituzte, norberaren lanketa hortik has-teko.

Eta *Mondraueko* 80ko hamarkada iruditan jasotzen duen erakusketa hori lantzerakoan, Ez Donk Amaitu-ko kideak harritu egin dira, nahiz eta lehendik bazuten argi zein ilunez betetako garai hartan zabaldu ziren bide, lorpen eta saiakeren berri.

Pentsaezina dirudi gaur egungo begiekin ikusita garaiko sindikatu guztiak batu eta Falange handik kanporatuta eraikin oso bat okupatzea. Eraikin hori izan da orain urte gutxi arte Arrasateko hainbat eta hainbat herri ekimenen topagune.

Indarra dauka, baita ere, jakiteak hamarkada berean herritar talde batek –Komite Antinuklearrak deituta– Arrasaten dagoen parke erraldoiena herriarena izan zedin birritan piknik edo *flower-power* jiran okupatu izana. Eta horiei esker, Udalak lurra eta jauregia jabeak ziren kondeei erosi eta ateak zabaldu zituen.

Ildo berean, Arrasateko zein beste leku askotako gazteria zenak eskertu egin beharko lieke derrigorrezko soldadutza ezabatzeko lehen pausoak eman zituztenei; horra hor, gure eskualdean aitzindari izandako eta presondegi militar batean gatibu egon zen Iñigo Irausegi, esaterako. Eta zorretan gaude, baita ere, hiesa zer zen nonahi plazaratu eta herritarrak horretaz prebenitzeko lan mardula egin zuen Jon Salaberrikin ere.

MITIFIKATU GABE, EZAGUTU ETA IKASI

Era berean, RIP taldekoak nabarmentzearen aurkakoa izan dira beti, baina paradoxikoki jarrera horrek ere eman die denborara balio handiagoa, eta ukaezina da askoren eta askoren gogoan daudela haien musika, hitzak eta atzean zeuden pertsonak. Baina inor gutxi oroitzen zen haien gerizpean ibilbide motzagoko eta oharkabeagoko Naska, Extorsion zein Pabellon Negro-ren gisako talde punk amorratuak ere izan zirela herrian. Horiek eta garaiko punk klixetik aldentzen zirenak ere: esaterako, landu zuen proposamen eta estetikagatik punkiak baino punkiago zen Matrona Impudica, The Cure taldearekin batera agertokira igo zena.

Zeresanik ez kalean euskara apenas erabiltzen zen garaietan horri buelta emateko Arrasate Euskaldun Dezagun sortu zutenei buruz; edo abortuaren eta berdintasunaren aldeko lehen aldarrikapenak egiten hasi zirenei buruz.

Mitifikatu ez, mesedez, baina badugu garai horretatik zer ikasi! •

Askotan aldarrikatu da 80ko hamarkada errepikaezina izan zela. Dena dela, badugu hamarkada horretatik zer ikasi eta desikasi



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

Hego Korea, txipiroiez harago

Mende-
balde-
ko na-
rratibar
e k i k o
antze-
kotasun handia dutela esan daiteke, bai. Baita zinema komertzialaren antzeko arauak jarraitzen dituztela ere, ados. Baina Hollywoodeko film baten zeharkatuko ez lituzkeen muga horiek hausteak thriller korearra azpigenaro bilakatu duela pentsatu izan dut beti. Istorio gehienetan loratzen den kodiziaren eta mende-kuaren bilaketa horrek sen ona traizionatu daitekeela erakusten duelako. Pertsonaien portaera irrazional horrek gure mundua zeharo suntsitu duela, alegia.

Filmon erakargarritasunaren gakoa bizi ditugun garai kezkarri honekiko duten loturan aurki dezakegu. Gizarte korear horren ikuspegi iluna, planteatzen diren gai gehien hazkuntza-likidoa baita. Mitologia fantastikotik eta mamu mendekarietatik harago, benetako beldurra errealtatean bertan topa daitekeelako. Horixe da thriller korearrek maiz jariatzen duten indarkeriaren eta basakeriaren zergatia.

Herrialde nordikoetatik datozen Nordic Noir filmekin gertatzen den bezalaxe. Danimarka, Suedia, Islandia ala Norvegia arrakasta handiz ari dira euren ekoizpenak mundu osora esportatzen. Gu guztiok idealizaturik dugun gizarte horrek miseriak ere badituela nabarmentzen duten istorioak jorratuz, batik bat. Eta benetako beldurra, gure lasaitasuna

Denok entzun dugu jada –nazkatu arte– mundu mailako fenomeno bilakatzen ari den Netflixeko «Squid Game» telesailari buruz. Azken egunotan aldiz, Apple tv+ plataformak «Dr. Brain» telesail hegokorear interesgarria ere estreinatu berri du. Nazioarteko erakusleho lehiakorrean kokatzea lortu duten izenburu horiek aitzakiatzat erabili nahiko nituzke, ekialdeko zinemaren itsaso zabal horretan, oso gustuko dudun uharte bat aurkezteko: thriller korearra. Ezagunak dira indarkeria esplizituki agertzeko duten zaletasunagatik, baina baita umore beltzarekin nahasteko duten ahalmenagatik ere. Teknikoki bikainak, gidoi sendodun istorio ilunak, indarkeria esplizitua gainezka duten sekuentzia bortitzak eta interpretazio paregabeak.



eten dezakeen beldurra, bizi ditugun garai latzetan topa dezakegulako. Gidoiaren bareneko pertsonaia eta kokalekuak lantzeko orduan, ikuslearen enpatia sortzea da gakoa, identifikatuta sentitzea. Horretarako, ezinbestekoa izaten da polizia tramaren azpian, bahiketa kasuaren tartean ala beldurrezko pasarteetan muinean, gizarte gaiak lantzea. Azken batean, modu sotilean herrialde jakin horren erradiografia erakustea. Eta hori da, hain zuzen, thriller korearretan topatuko duguna. Thrillerra bai, baita akzioa, beldurra, odola eta umorea ere. Baina batez ere, gizarte korearraren eskaner txiki bat. Hauxe nire ustez «Squid Game» telesailaren alderdirik interesgarrienetarikoa.

Dena den, esan beharra dut generozko film korearrak ez direla inoiz ikusle korearraren gustukoenak izan. Beldurra, fantasia eta thrillerrak azken postuetara baztertu ohi dituzte –animazioa eta zinema erotikoaren gainetik soilik, beraz, pentsa–. Lehen postuetan, nola ez, melodramak, zinta erromantikoak, komediak... aurki ditzakegu. Baina tira, sasi-intelektual jakak eskitokian zintzilikatuko dut behingoz eta matraka hau alde batera utziko, film zein telesailak ikusteko gonbidapena luzatzea baita egin dezakedan gauzarik onena. Emandako argudio guztiak ahul geratzen direlako izenburuok duten indarren aurrean. Argudio sendoenak pantailan topatuko dituzue. Hortik aurrera, bakoitzak ateratzeko dituzala bere ondorioak.

Pantaila txikiko izenburu batekin hasiz –aipaturiko “Squid Game” eta “Dr Brain” ikustea ere interesgarria iruditzen zait, noski–, “Kingdom” generozko proposamena gomendatu nahi dizuet. Erdi Aroan girotua, Joseon samuraiaren dinastiaren aroan, apokalipsi zonbi ezohiko bat erakusten duen izenburua da. “The Walking Dead” telesailaren zalea bazara eta azpigenero honen beste ikuspegi berri bat ikusi nahi izanez gero, apuntatu izen hau.

Pantaila handira jauzi eginenez gero, aldiz, asko daudela esatea nabaria denez, «ezinbestekoak» aipatzen saiatuko naiz. “Memories of murder” zerrenda horretako filmen artean ezinbestekoena litzateke. “Zodiac” eta “Seven” filmen ukituak dituen istorio indartsuak 2003ko Donostiako Zinemaldian zuzendari onenaren saria eman zion Bong Joon-hoo zinemagileari. 1986ko Hego Korean girotutako filma da. Neska gazte bat bortxatu eta erail egin dute. Bi hilabete geroago, *modus operandi* berarekin akabaturako biktima gehiago azalduko dira. Serieko hiltzaile horren kasua ikertu bitartean, elkarren artean oso desberdinak diren bi poliziaren istorioa ikusi ahal izango dugu. Interesgarriena, 80ko hamarkadako Korean girotua dagoe-la, eta diktadura militarren kiratsa nabari dela airean. Horrek guztiak, pertsonaia bitxi horiek sakontasun mamitsu eraikitzea ahalbidetzen du. Istorio gogorra, iluna, nahasia, itsaskorra eta umore beltz ukitu zoragarri duna. Gidoia, interpretazioak, argazkia, musika... ezin trabarik jarri film paregabe honi. Thriller bat dela argi dago, baina baita drama politiko-



sozial bat, eta zergatik ez, beldurrezko film bat ere.

Oraindik gosez? Iluntasun horren barruan galtzeko irrikaz bazaudete, ez galdu orduan izkina guztietatik zinema beltza jariatzen duen “A bittersweet life” (Dalkomhan insaeng, Kim Jee-woon, 2005) bikaina. Basatia eta zoragarria era berean.


Ala zergatik ez duzue tentsioz beteriko “The Chaser” (Chugyeogja, Na Hong-jin, 2008) thriller gupidagabea ikusten, sabelean ukabilkada lehor eta mingarria sentitzen duzuen bitartean? Dasta ezazue bestela Park Chan-wook zuzendariaren “The Vengeance trilogy” ezaguna. “Oldboy” (2003) zalantzarik gabe, trilogiako beste bi lanen gainetik dago. Borroka sekuentzia ikusgarriak, gordinak eta urduritasun ukitu batekin errodatuak. Dena den, gomendagarria da beste biak ere ikustea: “Sympathy for Mr Vengeance” (2002) eta “Sympathy for Lady Vengeance” (2005). Beldur ukituak dituen thriller poliziako baten bila zabiltzatela? “I saw the devil” (Akmareul boattda, Byung-hun Lee, 2010) duzue aukera onena. Bortitza, gogorra, odoltsua eta gordina. Gogoangarria bi protagonisten arteko duelua. Erokeriari, mendekuari eta heriotzari buruzko ezinbesteko filma.

“The Yellow Sea” (Hwanghae, Na Hong-jin, 2010), “Ddongpatri” (Breathless, Yang Ik-june, 2008), “A Dirty Carnival” (Biyeolhan Geori, Yoo Ha, 2004), “The Man from Nowhere” (Ajeossi, Lee Jeong-beom, 2010), “Mother” (Madeo, Joon Ho Bong, 2009) eta abar. Askok dira ezinbestean ikusi beharrekoak. Ez izan, beraz, beldurrik aurreiritzi horien hesiak hausteko, eta ausartu ekoizpen hauek ezagutzen.

ireki gure leihoa



GAUR8



Aritz LOIOLA | FOKU

IKUSMIRA

AMURIZAK EZ DIEZAZULA IZENBURUA ZAPUZTU

Joan den asteartean, Xabier Amurizak "Etxepare, jalgi hadi batura" liburua aurkeztu zuen, Nafarroa Behe-reko idazlearen "Linguae vasconum primitiae" obraren bertsioa, euskara batuan emana. Oker baten ondorioz ekin zion lan horri Amurizak. Joan den ekainean Etxepareren antologia bat egokitu zuela iragarri zuen prentsaurreko batean, inprimatutako euskarazko lehen obrako poema bakoitzetik lau edo bost ahapaldi euskara batura itzulita, eta zenbait hedabidek "Linguae Vasconum Primitiae" osorik itzuliko zuela ulertu eta halaxe argitaratu zuten. «Ez ezazu inoiz utz errealtateak istorio (izenburu) on bat zapuztu diezazun». Mark Twainek esan omen zuen baina dirudienez esan ez zuen eta esan bazuen ironiaz esan zuen esaldi hau hitzez hitz hartu eta kazetaritzaren araurik gorena balitz bezala baliatzen dute hainbat kazetari eta hedabidek. Oraingo honetan, aldiz, kazetari eta hedabide horiek ez dute halakorik egin. Amurizak berak, oker hark «argi bat piztuta», hedabide horiek esandakoa alferrik ez galarazteko asmoz-edo, Etxepareren obra osoa eman du euskara batuan. Xabier Izaga Gonzalez

«HATER»-EN JOMUGAN

Zientzia ikertzaileek eta dibulgatzaileek jazarpena jasaten dute sareetan

 **JENDARTEA** / Pablo Ramos Delgado

Haterrak, sare sozialetan errespetu faltan, irainen

eta mehatxuen bidez beste erabiltzaile batzuk iraintzen eta jazarpena dituzten pertsonak, oso ohikoak dira, eta ondorio beldurgarri garrantzitsuak dituzte gizarte sektore guztietan. Txosten baten arabera, arazo horrek ikerketen aurrerapena eta berrikuntza mugatu litzake, kanal horietan eta hedabideetan maiz agertzen diren zientzialariek jasotzen duten presio oldarkorraren ondorioz.

“Nature” agerkari zientifikoak hedabideetan eta sare sozialetan covid-19ak eragindako pandemiari buruz informatzeko eta iritzia emateko parte hartu zuten hirurehun aditu baino gehiagori egindako inkesta batek ondorioztatu duenez, horien %60 inguruk jazarpen eta abusu motaren bat jasan zuten sare sozialetan, eta %15ek esan zuten heriotza mehatxuak egin zizkietela. Adituen aurkako jazarpen edo bullying horrek eragin geldiarazlea izan lezake komunikazio zientifikoan eta are ikerketak batzuetan, lan horrek ohartarazi duenez.

«Sareetan ohikoa da ados ez daudenen iruzkin iraingarriak jasotzea. Gauza bera gertatzen da egunkarietako artikuluetako iruzkinekin. Ez dago ondo, baina ohitu egiten zara. Baina pandemian zehar, batzuk harago joan dira eta, nire kasuan, gorroto kanpaina antolatu baten biktima izan naiz, batez ere jende askok sare sozial guztietan utzi dituen mehatxuen eta irainen biktima», azaldu du Salvador Macip i Maresmak, UOC Kataluniako

UOC Kataluniako Unibertsitate Irekiko adituek eta ikertzaileek ohartarazi dutenez, komunitate zientifikoaren eta haren iritzien aurkako jarrerak gero eta larderiatsuagoak dira sare sozialetan. Inkesta baten arabera, pandemiari buruzko iritzia emanez parte hartu duten adituen %60 inguruk abusu motaren bat jasan dute sare sozialetan, baita heriotza mehatxuak ere.



Unibertsitate Irekiko Osasun Zientzien Ikasketetako irakasle eta ikertzaile, Leicesterreko Unibertsitateko Mechanisms of Cancer and Ageing Lab-eko zuzendari ikertzaile eta dibulgatzaile zientifikoak.

Aditu horrek zenbait erabiltzailearen sarbidea blokeatu behar izan du denbora batez, helarazten zizkieten iruzkin desatsegin ugariak zirela eta, hala nola heriotza edo tortura mehatxuak, akusazio faltsuak edo ohorearen aurkako erasoak. «Herriar guztientzako ekarpenak egiten zituzten profesional askok ere oso garesti ordaindu dituzte beren ekarpen altruistak, herritarrek une historiko honen erronkarik garrantzitsuenari aurre egin diezaioten laguntzeko eginak», adierazi du Enric Soler psikologo eta UOCeko Psikologia eta Hezkuntza Zientzietako Ikasketetako irakasle laguntzaileak.

IRITZIAK BALDINTZATZEKO PRESIOAK

Argudioen eta iritzi zientifikoaren gainean presio egiteko prozesu honek ezberdin pentsatzen duten erabiltzaileen iritzia eta argudioak kikiltzea du helburu. Esate baterako, ingurumenari eta elikadurari buruzko gaiak edo genero indarkeriari buruzkoak zabalitzen dituzten adituek etengabe jasotzen dituzte irainak eta mehatxuak.

«Horrelako jazarpeni aurre egiten ohituta ez dauden langile akademiko eta zientifikoak, uzkuritu daitezke; are gehiago, beren iritziake autozentsuratu ere egin ditzakete», azaldu du Alexandre Lopez Borrull *fake news* edo albiste faltsuetan aditu eta UOCeko ikertzaileak, pandemiaren garaian agertu dituen iritziake direla-eta sare soziale-

tan nolabaiteko jazarpena jasan duenak.

Baina egoera hori, gaur egun askoz ere agerikoagoa den arren, sare sozialak jendarteratu aurretik ere bazegoen, antzeko gertakariak izaten baitziren. 2011. urtean, Ameriketako Estatu Batuetako Zientziaren Aurrerapenerako Elkarte ospetsua (AAAS), "Science" munduko aldizkari zientifiko garrantzitsuenetakoa argitaratzen duen erakundea, komunikatu batean «kementsu» agertu zen klima aldaketarekin lotutako ondorio zientifikoekin ados ez zeuden hainbaten erasoen aurka, iker-tzaileen osotasun pertsonala eta profesionala zalantzan jarri edo haien segurtasuna mehatxatzen zutelako.

«Sare sozialetako presio horrek ikertzaileen iritziak mugatu ditzake, oharkabea bada ere. Alabaina, ez dut uste ikerketa jakin baten norabidea baldintzatzeraino eragin dezakeenik. Bai, beharbada, publiko orokorrarekin komunikatzeko moduan edo inoiz gehiago ez egiteko erabakian», ohartarazi du Marta Aymerich UOCeko Plangintza Estrategikoko eta Ikerketako errektoreordeak.

Gogoratu beharra dago ikerketa zientifiko oro ziurgabetasunaren eremuan mugitzen dela eta, beraz, haren zeregin nagusia ahalik eta galdera egokien eta aproposenak egitea da, eta emaitzak ez dira beti egia iraunkorrak. Hau da, gaur egia denak bihar egia izateari utz diezaioke, beste ikerketa talde batzuek gainditu edo are ezeztatu dutelako.

«Kontua ez da zientzian sinestea, kontuan hartzea bai-zik. Ikerketa zientifikoak ez du sortzen itsu-itsuan jarraitu beharreko emaitzarik. Emaitza zientifikoek erabakiak hartzen

«Hater» edo gorrotatzaileek ikertzaile eta dibulgatzaile zientifikoak jazarritzen dituzte zientzia komunikatzeagatik.
GAUR8 - FREEPIK



laguntzen dute, baina ez dute esaten zer egin behar den, erabakiak pertsonok hartzen ditugulako. Horregatik, ikerketa zientifikoak, edo horiek egin dituztenak, ezin dira izan erabaki txar batzuen errudun. Izan ere, oso zaila da erabakiak ziurgabetasun baldintzetan hartzea», azaldu du Aymerichek egoera jakin batzuetan neurriak eta estrategiak hartzeko erabakiaren inguruan. «Hori bai, zientzia ulertu eta kontuan hartzeak konplexutasunerako prestatzen gaituela uste dut», gehitu du.

Argudioen eta iritzi zientifikoaren gainean presio egiteko prozesu honek ezberdin pentsatzen duten erabiltzaileen iritziak eta argudioak kikiltzea du helburu

Zientzialariak funtsezko papera dute gaur egungo «fake news» direlakoei eta sare sozialetako desinformazioari egiazko argudioekin aurre egiteko


KOMUNITATE ZIENTIFIKOAREN ZEREGINA

Hala ere, presioak gorabehera, sare sozialen testuinguruan, informazio, iritzi eta are *fake news* direlakoan bonbardaketa dela-eta, argudio zientifikoak inoiz baino beharrezkoagoak dira. «Pandemiak ikusgarritasuna eman die adituei, orain arte diskrezioaz lan egiten baitzuten beren erakundeetako laborategietan. Zientzialari batek ez luke bere irudi publikoaren aldeko lanik egin behar; aditu baten irudirik onena bere aurkikuntzek biztanleen bizi kalitatea eta osasuna hobetze-

ko duten balioa eta erabilgarritasuna dira», argudiatu du Enric Solerrek.

Beraz, adituek sare soziale-tan eta hedabideetan izan behar duten zeregina desinformazioari aurre egiteko argudio zientifiko eta bermatuak azaltzea izan behar da. «Kanal mota horietan 'fake news' direlakoei aurre egiten lagunduko duen baliozko edukia egon behar da, eta zientzia zabaltzen duen informazio erabilgarri eta egiazkoa egotea oso garrantzitsua da», azpimarratu du Alexandre Lopez Borrullek.

Gainera, pandemian, zientzialarien azken hilabeteetako agerpena oso positiboa izan da, eta haietako asko lehen aldiz dibulgatzera animatu dira. Beste alde batetik, herritar askok lehen aldiz entzun dituzte zientzialariak. «Kalitatezko informazio jario hori funtsezkoa da, eta bultzada hori aprobe-txatu eta hari eusten saiatu behar da», bukatu du Salvador Macip i Maresmak.



Alazne Diez Muñiz, Bilbon. Monika DEL VALLE | FOKU

infraganti

ALAZNE DIEZ MUÑIZ

Hamahiru emakume elkarrizketatu, eta haien bizipenekin garai bateko bizimoduaren eta mentalitatearen argazkia osatu du Alazne Diez Muñizek «Ganbara argitua. emakumeen ahotsak eta oihartzunak» bere azken liburuan. Oroimenarekin lotura argiak dituen lanaren aurrean, gertatu zenaren egia erakustea justizia egitea dela uste du.

Memoria historikoaren berreskurapena Alazne Diez Muñizen pasioetako bat izan da, eta neurri handi batean horrekin lotuta dago “Ganbara argitua. Emakumeen ahotsak eta oihartzunak” bere azken liburua. Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratu

tzen dion bigarrena da. Aurrekoa, “La memoria, herida abierta”, 1936ko gerrako kontakizunarekin lotuta dago. «Aita langileen batai-loi batean egondakoa zen eta horrek gaian sakondu nahi izatera eramán ninduen», azaldu dio GAUR8ri.

Bigarren liburu honek arrasto goxo bat utzi diola onartu du. Izango da bizipenak partekatzeak lotura bereziak sortzen dituela, kontatzen diren pasadizo askotan oroimena piztu eta elkarri josita emakume askoren memoria islatzen dutelako. Liburua idazteko egin zituen elkarrizketetako batzuk konfinamenduan egin zituen, gainera, oso une berezian, intimoan, introspektibotan, kalera irten ezin izan zen giro bereziko egun haietan.

1946an Plentzian jaioa, egun Bilbon bizi da. UNEDen Soziologia eta Antropologia sozial eta kulturalean lizentziatua eta Antropologian doktorea da Diez. Onartzen du gustatuko litzaiokeela gerra garaiko emakumeen istorioetan arreta jartzea, baina urte asko igaro dira, eta «zaila zen garai hura haiekin gogortzea». Bere azken liburua hamahiru emakumeren bizipen eta esperientzia pertsonalen bilduma da. 1935. eta 1952. urteen artean jaiotako emakumeak dira, frankismo bete-betean jaio eta hazi zirenak, beraz.

Egileak nabarmendu duenez, garai baten memoriaren zertzeladak daude kontakizun horien atzean, ikasketetan, ardura publikoetan, euskararen arloan edo emakume eta gizonen arteko berdintasunean irabazten joan ziren urrats txikiak. Kontatzen dituzten etxekoen pasadizoek ederki laguntzen dute, bestalde, gertatu zen hura argitzen. Ama Elantxobetik 18 urterekin irten eta gaztelaniaz hitz bat bera ere jakin gabe zerbitzatzera joan zeneko kontakizuna, Bandas Etxe-

barriko lantegiko greba historikoaren oroitzapena, alaba txikia besoetan zuela atxilotu eta alabarekin kartzelara eramán zuten aita hura... Bizitza ezberdinen pasadizoak dira, eta tartean gertae-rak eta beste emakume askoren istorioak azaltzen dira; adibidez, garaiko bizimoduaren gorabeheren ingurukoak (zailtasun ekonomikoak, diktaduraren jazarpena, lan egin behar izan zuten edo etxean lagundu behar zuten neska haien haurtzaroak...), egunerokotasunaren kronika txikiak balira bezala. Hortik dator izenburuaren bigarren zatia, hamahiru emakumeon ahotsek beste askoren bizitzan «oihartzunak» azaleratu dituztelako.

AMA, AMAMA ETA MAISTRA HAIEK

Oroitzapen eta gogoeten artean, aitzitik, ama, amama edo maistra haien istorioak aipatzen dira. Garaiko etxeetan bizi zen giroa ere islatzen da pasarte askotan. Erraz irudikatu daiteke sukalde hartako bizimodua. Askotan protagonistek kontatutakoek mundu ezberdin bien arteko talka moduko bat marrazten dute: etxea eta plaza publikoa ez zetozen bat hainbat gairen inguruan. «Adibide argi bat da euskara, izan zen jazarpenarekin ez baitzen galdu, eta era berean tradizioen eta kulturaren transmisioa... eta horretan emakumeak ziren eragile nagusiak, gizonak normalean etxetik kanpo egoten zirelako».

Era berean, garai hartako gizon batzuen alde egin behar dela uste du. «Emakume hauek askotan hitz egiten dute euren aitei buruz, eta matxismo amorratu eta autoritate-irudi haren barruan autoritarismoa hain goraiatua zegoen garai hartan, euren aitek zuten sentiberatasuna nabarmentzen dute».

Bizipenen artean, ingurune soziopolitiko, ekonomiko eta



«Ganbara argitua. Emakumeen ahotsak eta oihartzunak» bere azken liburuan, lagun ezberdinen bizipenak bildu ditu Diezek.

Monika DEL VALLE | FOKU

kultural ezberdinetako emakumeak bildu nahi zituela nabarmendu du egileak. Horregatik, proiektio publikorik izan ez duten emakumeak daude esfera publikoan ezagunak direnen ondoan, Miren Josune Ariztondo EAJko buruzagi ohia eta hainbat ardura publiko izan dituen edo Blanca Estrella Ruiz Clara Campoamor elkartearen presidentea, kasu.

Istorio guztiak josten dituen haria bizitako garaia da. Horregatik, errelatoetan sartu aurretik, sarrera gisa gerraosteko egoera soziopolitikoan jartzen du begirada Diezek. Azaldu duenez, kontakizunak testuinguruan jarri eta deskribatzen duten giroa ulertzeko, atzera joan behar da, gerrak utzitako itxi gabeko zauriei erreparatu, gerraosteak eta diktadurak zer ekarri zuten go-

goratzeko. Oroimen historikora itzulita, gertatu zen hura berreskuratzea, egia erakustea, justizia egitea dela uste du.

Hamahiru emakume hauek zergatik aukeratu zituen galdetuta, Diezek argitu du profil ezberdinetako lagunak biltzen saiatu dela, kontakizun horietan euren burua islatuta ikus dezaketene emakumeak ere gehiago eta profil askotarikoak izateko. Aipatu duenez, kanpotik heldutako emakumeen lekukotasunak ere badaude, zer-nolako harrera eta egoerak bizi izan zituzten is-

Protagonistekin izandako elkarrizketa batzuk konfinamenduan egin zituen, telefonoz. Nabarmendu duenez ez zuten indarririk galdu, hura sentiberatasun handiko unea izan baitzen

Diezen ustez, emakume askok euren burua islatuta ikusiko dute bizipen askotan, erraz irudikatu daitezke garaiko etxeetan zegoen giroa, bizimodu hura

latzeko.

Diezek argitu du galdetegi batean oinarritutako solasaldiak izan zirela, baina ez zituela galdera komun batzuk erabili. Ba-

ko itzaren errealitatearen araberako galdetegiak prestatu zuen, eta hortik aurrera esan behar zuten guztia adierazteko mugarik ez zutela izan nabarmendu du. «Pandemia heldu aurretik hasi nintzen elkarrizketak egiten eta gero konfinamendua heldu zen, elkarrizketa batzuk hitzartuta nituen. Niri telefonoz elkarrizke-

tak egiten zizkidaten bezala, aukera bat zela pentsatu nuen eta grabagailua eta telefonoa eskutian elkarrizketak egiten jarraitu nuen. Oso esperientzia polita izan zen, mundu guztia zegoen etxean, gainera, eta sentiberatasun handiko oso une berezi bat sortu zen», azaldu du.

Entzundako pasarteetan ez du anekdota bitxi edo deigarriarik. «75 urterekin, gauza ezagunak dira gehienak niretzako, ezagutzen ez nituen berezitasun batzuk kenduta, adibidez, senarra itsasgizona zuen Marcaidak eta leku guztietara eraman behar zuten agiri horrena...», nik ez dut hori bizi izan, baina uste dut beste egoera batzuetan oso islatuta sentitzen garela nire adineko emakumeak».

Nerea Goti



Ana Elozegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Hildakoen Eguna eta monarka tximeleta: Ongi etorri, Txusa maitea!

Hauxe da aspaldian entzun dudan istorio politenetakoa. Mexikon oso berezia izaten da Hildakoen Eguna eta beraientzat oso egun garrantzitsua. Tximeletak egun horretan oso urrutitik iristen dira. Misterio handi bat da tximeleta horiek guztiak nola iristen diren Mexikora hain urrutitik negua pasatzera; tximeleta batek nolatan egin ditzakeen 3.000 kilometro inoiz egon ez den herrialde batera iristeko.

Eta kausalitatez, Hildakoen Egunean iristen dira Mexikora. Egund horretan mexikarrek beren familietan hildakoen eta maite dituzten pertsonen panteoietan lore mordo jaritzen dute arimak erakartzeko. Eta tximeletak agertzen direnean, hildakoen arimak direla uste dute, milioika eta milioika tximeleta...

Istorio hau eta beste asko orain ospitaleko ohe alboan eta lehenago bidaietan entzun dizkiot; bere etxean, kontsultan, ikastaroetan... berarekin konpartitu dudan denbora guztian entzun ditut. Maite dut istorioak entzutea, hemengoak nahiz hangoak, jakinduriak betetako istorioek liluratzen naute... Orduak eta orduak emango nituzke bera entzuten.

Hainbeste paziente, hainbeste lagun tratatu dituen sendagile eskuzabal zein jakintsua. Zenbat jakinduria, zenbat bidaia... 78 egun ZIUn igaro ondoren, bera berriz entzutea gozagarri handia da niretzat.

Zein polita den ikustea berarekin ospitalean egoteko zenbat lagunek deitzen duten; bere ikastaroetan parte hartutako ikasleak, bizitza osoko pazienteak, denak prest bera zaintzeko.

Sendagilea baino lehenago pertsona izan delako, eta berak pertsona horiengatik zekien dena eman delako beraien osasun bidean laguntzearren, bere profesioagatik dena eman duen pertsona handia delako.

Zein polita den pertsona bat ikustea maitasun hori guztia jasotzen. Izan ere, pertsona gutxi egongo dira denbora luzez egunero hainbeste pertsona bere alde errezatzen jarri dituztenak! Bakoitzak dakien moduan, kandelak piztuz, meditatzen, besteak jertseak egiten....

Zein ederra den, jendartea hain hotza eta banakotasunean oinarritua den garai honetan, pertsonen

arteko harreman hauek ikustea, maitasuna sentitzea. Ospitaleko gelan sartzen ikustea borondate onenarekin bata-pontxo handi bat oparrituz berak egina, bestea loreekin...

Eta orain zoratzen joan naiz bere albora, ospitaleko gela handira, kontuak esan eta barre egitera. Batzuetan bere amorrazioak entzun ditut eta, besteetan, berak nireak, betiko moduan elkarrekin. Nik 78 egun horietan egunero piztu dut kandela, Mexikoko tximeletak ari-mak bailiran, nire kandelak Txusaren bizitzeko indarraren sua piztu zezaten. •




Irudian, monarka tximeleta bat. Lotura berezia daukate Mexikon Hildakoen Egunarekin.

GAUR8

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



PEDRO YARZA «VILLABONAKO BESAMOTZA», PILOTARI ZALAPARTATSUA

Pedro Yarzak (1861-1898) eskuin besoa galdu zuenean hasi zuen bere ibilbidea pilotaren munduan, eta zesta-puntari ekin zion profesionalki. 1892an, batez ere Gipuzkoako eta Bizkaiko frontoi askotan jokatu ondoren, "Euskal-Erria. Revista Bascongada" aldizkariak jaso zuenez, Buenos Airesera joan zen Euskara Plaza frontoian jokatzera. Bere bidaia luzeak Rio de Janeiro, Paris, Madril eta Bartzelonako frontoietara eraman zuen, besteak beste. 1892an Peña y Goñik "La pelota y los pelotaris" liburuan Pedro Yarzari buruz idatzi zuen: «Villabonako pilotaria zen, jokalaria zalapartatsu, temoso eta alaia, bere kideei zailtasunak sortzen zizkiena; egoera makurrei neurria hartzen saiatzen zena; marmartia eta umore txarrekoa, enpresaburuen mamua eta epaileen izua (...) nerbioak beti airean, galgo batek bezala bilatzen du pilota, batzuetan garrasika, ai, ai, ai, eskuineko besoko muinoia altxatuta ezin duenean harrapatu, atsekabe komiko batean (...) haren joko amarrutsu eta traidorea errematean dago, bertan erakusten ditu trebetasun guztia, makurkeria guztiak, jokalaria eskuin guztien ahalegin eta maisutasunak maiz antzutzen dituen arte baten baliabide aparta eta nahasgarriak». Artikulua ilustratzen duen argazkian, Pedro Yarza "Villabonako besamotza" 1891n Hermenegildo Otero argazkilari donostiarrentzat posatzen ageri da.



GAUR8 *ireki gure leihoa*

